

# ERIEEN AURERAKUNTZA

POPULORUM PROGRESSIO

ANAITASUNA



Europako erririk zaarrenak,  
Euskal Erriak,  
Zeure lanik ederrena  
bere izkuntzan  
eskeinrzen dautsu.



## AITA SANTU PAUL VI-ak

Gotzain, abade, eleizgizon, eleiztar eta borondate oneko gizon guztiei.

Anai agurgarri ta seme-alaba maiteok: Osasun eta apostolutar onespena.

### SARRERA

## GIZARTE ARAZOAREN PREMIN LARRIA LUR ZABALEAN

### 1.—ERRIEN AURRERAKUNTZA

Errien aurrerakuntza begi onez ikusten dau Eleizak, ta batez be goseari, txirotasunari, errialde batzuetako geixo bereziei, iakinezari iges egiten aleginduten diranena; erri-lantzearen frutuetan eskuartze zabalago bat, gizonaren alde-onen baliotze eragikorrago baten billa dabilzanena; ta aurreragozte bete baterantz gogo beroz doazanena.

Batikano II Batzar Nagusia amaitu ta batera, Ebanjelioaren deiaren indarrez, barru-eragite batek bultzauta, gizonen laguntzera iarri da Eleiza: Auzi larri onen barru-ertzak ikusten, eta Gizadi Edestiaren bein-betiko aldatze onetan, alkarregazko egintza bear-bearrezkoaren kezka, buru-biotzetan sartzen laguntzeko.

### 2.—AITA SANTUAK GIZARTE-EGINTZARI BURUZ IRAKASTEN

Leo XIII-ren «Rerum Novarum», Pio XI-ren «Quadragesimo Anno», Ion XXIII-ren «Mater et Magistra» ta «Pacem in terris», Eskutitz Nagusietan —Pio XII-ak irrotsez munduari zuzendutako itzaldiak (1) aztu barik— gure aurretikoak, gizarte arazoari buruz, Ebanjelioaren argitasuna emoteko euken arloan, ez eben utsik egin.

### 3.—EGINTZA GARRANTZITSUA

Gaur, guztiek aintzat artu bear leukeen iazoyerarik garrantzitsuena auxe da: gizarte-azua mundu guztikoa egin dala. Ion XXIII-ak garbi esan eban; eta Batzar Nagusiak arek esana ontzat artu dau «Eleiza Munduan» (2) deritxon Agirian. Irakatsi au astuna da, eta bera bete-bearra ezin itxia. Goseak ilten dagozan erriak, erosta larriz deitzen dautsee erri eukitsuei. Atsekabezko une larri au ikusiz, Eleiza miñez dago, ta anaien deiari maitasunez erantzuteko guztioi deika.

### 4.—ERRIETATIK NIRE IBILTEAK

Aita Santu izatera eldu aurretik Ego Ameriketara (1960) ta Afrikara (1962) egindako nire ioan-etorri biak, bizitzaz eta itxaropenez betetako lurraldeak dabezana estutasun larriekaz artu-emonetan iarri ninduen.



Ion XXIII, gizonen aldezlaria.

Mundu oneri buruz, Aitatzakoa artu ta gero, Lurralde Santuetara ta India'ra egindako ibillaldietan, Neure begiz ikusi, ta Neure eskuekaz ikutu al izan dodaz, antxiñako ezikeradun erriak, aurrerakuntzak dakartsezan oztopo larriak goitu eziñik, daukezan eragozpen estu ta gorriak. Bigarren Batikano Batzar Nagusia, Erroma'n egiten zan bitartean, zerutiko bultzadak Erri Alkartuetako Batzar andian bertan, itzegin al izatera eroan ninduen. Alako entzule talde ospetsuaren aurrean erri ez-eukien aldezlaria izan nintzan.

### 5.—ZUZENTASUNA TA BAKEA

Azkenez, Batzarraren eskabideari erantzuteko asmoz, aurreratze-bidean doazan errien koska oneri Erroma'k emoten dautson laguntza agertzeko, Neure zeregin bat zala uste neban oraintsu auxe: Eleizak asmo ta gora-bera andiei erantzuteko daukazan gizon-taldean artean, Neure ardurapean talde barri bat sortzea. Bere elburua: «Iainko-erri osoan, gaurko aldiak baxotxari eskatzen dautson zeregiñaren ezaupide bete sortu-araztea. (Onetako batez be) Erririk ez-eukien aurreratzeari eragiteko; errien artean zuzentasun sozialari laguntzeko, atzeratuen dagozanei, eurak euretara ta eurentzat, geroari erantzun al izateko lako laguntza bat eskintzeko» (3).

«Zuzentasuna ta Bakea» da bere izena ta egitaraua. Uste dogunez egitarau onek, borondate oneko gizonak, Nire seme bakolikuekaz eta kristiñau anaiekaz alkartu daikez eta batu bear dauz.

Auxe dala-ta guztioi, gizonaren elburu betearen alderako ta gizadiaren aurrerakuntza alkartu baterako, Nik gaur deitze au.



GIZONAREN AURRERAKUNTZA OSO BATEN ALDE

I. Auzi onen ezaugarriak

6.—GIZONEN AMETSAK

Euren buruak ez-unetik aldendu, ziurtasun geiagoz bako-txaren iraupenari dagokiozanak aurkitu, osasuna, zeregin iraukor bat; erantzun bearrekoetan erdikidetasun geiago izan, gizonen duintasunari iraingarri iakozan egoerapetik eta zapalgarri guztietatik alde egin; eskolatuagoak izatea; itz baten, geiago egin, ezagutu ta euki, geiago izateko. Auxe da gaurko gizonen ametsa. Bienbitartean euretatik asko, gurari bidezko au, amets ustel biurtzen dauksen estutasunpeko eratan bizi dira.

Beste alde batetik, euren buruen iaube izatera, oraintsu eldu diran erriak, askatasun politiku oneri, eurak euretara egindako aurreratze gauza dan bat erantsi nai dautse, gizar-teari begira egiña, ekonomiari beste. Orrela erritarrak euren giza-elburu bete-betea lortu, ta errien arteko artu-emonetan eurei dagokien tokia bete al dagien.

7.—KOLONI-EGINTZA, TA EGINTZA ORREN ALDE TXARRA

Naiko ez-tiran arren, lenak eskuratu dauskuzan bide batzuk ba doguz, egin bear dan lan izugarri ta itxi ezin oni oratzeko. Egiz autortu bear da koloni-egintzailleak sarritan euren onerako ibilli dirala, agintzeagaitik edo entzutetsu izateagaitik. Alde egin dabenean, barriz, batzutan ekonomi-egoera larri bat itxi dabe, esate baterako, bakarreko lan egiteaz batuta dagona. Lan egiteko era onen ondorenak, uste bako, ta neurtzeko gatxak diran aldaketa batzuei lotuta dagoz. Baña koloni-egille batzuen utsegite ta onen ondorenak aztu ez arren, era berean bearrezko da ainbeste lurralde galduetan, euren iakintzaz eta teknikaz, euren lorratz lez frutu ederrak itxi dabezan koloni-egilleen egite ta asmoak txalotzea. Egindakoak uts asko izanda be, an gelditu dira, iakinezari ta geixoei aurka egiten, artu-emon ongarririk sortzen, ta bizikerak obetzen.

8.—DESBARDINTASUNA ANDIAGOTZEN

Esandakoa onartuta, argi dago gertakizun au gaurko ekonomiaren egoera larriari erantzun bat emoteko, naiko eztana. Bertan bera itxita, bere iokerak mundu au txarrera daroa, bizitzako malla ezbardinak leuntzera barik: erri eukitsuak aurrera doaz bizkor, ez-eukiak oztaz-oztaz doazan bitartean. Ezbardintasun au andiagotzen doa. Batzuk iaki larregi sortzen daben bitartean, beste batzuk areik lar daukenaren premiñean dagoz; azken oneik barriz, euren kanpora bialtzeak (exportaciones) ez-ziurrak dirala ikusten dabe.

9.—BARRU ARGIAGO BATEN BEARRIZANA

Era berean, gizarte aitu-eziñak mundu guztiraño zabaldu dira. Industriratzen doazan errietan ez-eukiekaz iaubetu dan artegatasun bizia, lurretik bizi diran aiekanaño be elduten doa orain. Nakazariak eurak be ba doaz euren «ezbear, mere-zibakoaz» (4) konturatzen.

Onein gañera datoz ezbardintasun mingarriak. Ezbardintasunak, ez bakarrik on diranekaz atsegindukeran, aginpidea erabilkeran egiten diranak askoz geiago. Errialde batzuetan jauntxo talde batzuk oparo bizi diran bitartean, beste erritarrak guztien premiñean dagoz, batasun barik, bere buruz ezertxo egiteko eskubide ta erantzun-bear bat barik, ta beste askotan gizaki bateri ez iagokozan bizikera ta lan-egikeratan (5).

10.—ERRI-AURRERAPENAK MUSTURKA

Eta gañera, antxiñako erri-lantzearen eta industri-zibili-zaziñoaren alkar-ioteak, gaurkotuten ez-tiran lege ta bizikerak apurtu egiten dauz. Euren ingurua, askotan gogorregia, batkotxaren eta sendien bizitzaren oñarri kendu-eziña zan. Zararrak lengoari loturik dagoz; gazteak ostera, alperriko oztopo bateri egin oi iakon lez igeska doaz, sozial bizitza-era barri batzuen billa egarriz. Gizaldien ulertu-eziña txarreratzen doa olan, banatze negargarri baten: antxiñako siñeskera ta lege zarretan irau, aurrerakuntzari iaramonik egin barik, edo erbestetik iatorkuzan teknika ta bizikera barrietara zabaldu, baña lengo izatea bazturtuaz, lengo giza-aberastasun guztiak galduta. Berez, antxiñako oitura, gogozko ta iainkozkoen oñarriak sarritan atzera egiten dabe, ta ori gorabera mundu barrian sartzea ziurra ezta.

11.—AZKENA


Aurreratze onetan tentaldia ain da gogorra! Mesias barrien aginduetara, ametsen egilleakana narraska eroateaz zematzen gaitu. Orretan dogun gal-zoria nok eztau ikusten? Erritarren naste oldartsuak; gizonaren askatasunik onartzen eztaben pentsakeraruntz garoakezan iskanbilla ta nasteak. Orra or, auziaren ezaugarriak: onen garrantzia aintzat artu bear dogu guztiok.

II. Eleiza ta aurrerakuntza

12.—MIXIOLARIEN LANA

Iainko Sortzaillearen irakatsi ta egikerari iarraituz, Bere eginbearraren ezaugarri lez ez-eukiei (6) Barri Ona iragartea itxi euskunetik, Eleizak Jesukristoganako siñismena eroaten eutsenaz batera, iñoz eztau baztarrean itxi erriak aurrera egiten laguntzea. Mixiolariak, elizak egiñaz batera, beti egin dabez guraso-bako umeentzat bizilekuak, gaixo-etxeak, ikastolak eta ikastetxe nagusiak. (Mixiño lurretan) Bertoko diranej, daukezan ondasunekaz aberastasunik geien zelan atara erakutsiaz, sarritan babesa emon dautse atzerritarren diru-miñaren aurka. Iakiña da, euren lana gizonena izanik, etzala izan ezin ohea. Batonbatzuk nastau al izan eikezan iñoz, euren iatorrietako pentsakera ta bizikera ainbat, Barri Onaren iragarte iatorraz. Baña, era berean, bertoko ziran oiturak be landu ta biztu ebezan. Errialde askotan, lureko ondasunen aurreratzailleen tartean iarri ziran, gogoak be batera landuaz. Naiko da Foucauld'tar Karlos Aitaren iokabidea aipatzea, bere goimaitasunagaitik «guztion anaia» eritxoan, Tuareg izkuntzaren iztegi eder baten egille dogu bera. Sarritan ez-ezagunak diran aurrendari onei, Kristoren maitasunak eraginda goratzarre bat





FOUCAULD'tar KARLOS, «guztion anaia».

egin bear dautsegu; eta bardin euren iarraitzaille ta lankideei. Ondiño gaur, aien antzera iokatzen dabenak ba dira, Barri Oneratutzen diarduen aien onerako duban dabiltzanak.

### 13.—ELEIZA TA MUNDUA

Baña aurrerantzean, bakarrekoe eta nonedonongoen alegiñak eztira naiko. Munduaren gaurko egoerak alkartutako lan baten premiña dau, ekonomi, sozial, kultura ta gogoarekiko egal guztiak, ezertan asi aurretik ondo aztertuaz. Eleiza, gizadiari buruz daukon esperientziatz, estadietako politikaz nastetan alegindu barik, baten billa doa: «Gogo Gurenaren gidaritzapean, mundu onetara egiaren alde autor egitera etorri zan Kristoren egintza bardiña egin: salbatera etorri zan (A) epaitzera barik, otsein izatera, otseindua izatera barik» (7). Lur onetatik zeruko erreñua egiteko sortua izan da Eleiza, ez lurreko ondasunetan aginpide bat izateko; argi diño Berak, aginpide biok ezbaridiñak dirala. Aginpide biok nagusi dira era berean, Eleizakoa ta errikoa, baña bakotxa bere arloan (8). Baña, aldi bakotxean aldi orretarako izanik, sasoi bakotxeko azatzak (ezaugarriak) aztertu bear dauz Eleizak, eta Ebanjelioaren argiaz antzemon eurei (9). Gizonen ametsik onenetan parte artuaz, ta ametsok egi biurtu eziñik min artuaz, euren elburu bete lortzen lagundu nai dautse, eta au egin be, berebere lez daukona agertzen dautselako: Gizonaren eta gizadiaren ikuspegi oso bat.

### 14.—AURRERAKUNTZA KRISTAU BEGIZ IKUSTEA

Aurrerakuntza, diru-arazoetako ezta bakarrik. Benetakoa izateko osoa bear leuke, au da, gizon guztientzakoa, ta gizon osoarentzakoa. Iakitun batek ondo be ondo esan dau: «Guk ezin dogu banandu diru-arazoa gizon-arazotik, erri-lantzeen barruko aurrerakuntzatik. Guretzako gizona da beiñena, gizon bakotxa, gizon talde bakotxa, eta gizadi osoa» (10).

### 15.—AURRERAKUNTZARAKO DEITUAK

Iainkoaren asmoetan, gizon bakotxa aurreratzera deitua da, edozein bizitza dei bat da-ta. Iaiotzatik bertatik, bakotxari emona izan iaku azi baten antzera, frutua ekarri bear leuken al-izate ta on-indar bat: au loratzeak, bakotxaren alegiñez, eta bakotxak bere inguruan artutako ezieraren frutua danak, Egilleak ezarrita bakotxak daukogun azkenera eltzen lagunduko dausku. Adimena ta aukeramena izanik, gizonak bere aurreratzearen eta salbatzearen erantzun bearra dauko. Ezizaille ta inguruko iakozanak lagunduta edo eragotzita, bultzatzen dautsen indarrak diranak dirala, bakotxa da beti bere zorion edo zoritxarraren egillea. Adimen eta naimenaren indarrez bakarrik, gizon bakotxa gizonago izan daiteke, geiago balioaz, eta geiago izanaz.

### 16.—BAKOTXAREN EGINBEARRA

Orrez gañera, aurreratze au, ezta artu nai itxi egin leitekena. Izadi osoa, Egillearen asmoetara dagoanez, gogozko izakia be Iainkoaganantz bere bizia zuzentzera beartuta dago, lenengo egia ta ontasun bete A da-ta. Onela, gizadiaren aurreratzea, gure eginbear guztien laburpen baten antzeko da. Geiago ondiño, izadiaren armoni eder au, bakotxaren alegiñez aberastu ta erantzunbear batez iantzita bikaiñagotzen ioatera deitua dago. Kristo biziaz batuta dago ta, aurreratze barri baterako, betegarririk andiena lez iagokon gizatasun gorengo mallarako bidea, zabalik dauko gizonak. Bakotxaren aurreratzearen elburu garaia auxa da.



Edozein bizitza, Iainkoaren dei bat da.



## 17.—ALKARTUTA IOKA-BEARRA

Alan be gizon bakotxa, gizartearen atal bat izanik, gizadi osoarena da. Ta ezta gizon au edo ori bakarrik, guztiak dagoz deituta aurrerakuntza bete onetara. Erri landuenak iaio, azi ta il egiten dira. Baña itxas-gora danean olatu bakotxak ondartzu aurrerago busti oi dauan lez, gizadia be era berean istori-bidetik aurrera doa. Lengo gizaldien ondorengo izanik, ta geure ingurukoen lanez lagunduta, guztientzat daukogu eginbear bat. Ezin dogu itxi zeozer egin barik, gizadiko sendia ugari-tzen etorriko diranen alde. Lurreko guztiekaz alkartzea, egi bat da, guztiontzat ongarria, era berean egin bearreko.

## 18.—BALIOEN MALLADIA

Bakotxaren eta guztien azitze au, okertu egingo litzake, balioen egizko malladia aldatuko balitz. Bearrezkoen egarria bidezko da, ta lortzeagaitik lan egitea bearrezko: «Lanik egin gura eztauanak, ez begi ian» (11). Baña lur onetako ondusunen lortzeak diru-miña sortu daike, geroago ta geiago eukiteko guraria, ta bakotxaren aginpidea andiagotzeko egarria. Gizakien, sendien eta errien zekenkeria gitxien daukenakaz lez aberatsanakaz be iaubetu daiteke, ta batzuetan nai bestietan materi-zaletasun ikaragarri bat sortu daike.

## 19.—BITARAKO BALIOTZEA AZTEN

Olan ba, geiago eukitea, erriarentzat lez bakotxarentzat, azken muga ezta. Edozein azitzek balio bikotxa dau. Gizona gizonago izan daiten bearrezko da, baña giltzapean lez iartzen dau aurreragokorik ikusi ezin ta, gorengo ontasun biurtzen dan une aretatik. Orduan, biotzak gogortu ta gogoak il egiten dira; arrezkero gizonak adiskidetasunaz eztira alkartzen, beste zerbaitegaitik baño, ta laster onek alkarren arteko burruka sortzen dau, bananduaz. Geiago eukitearen billa beste barik ibiltea oztopo aundi bat da izakiaren aurreratzerako, ta egizko bere aunditasunaren aurkako da. Zekenkeria, errirentzat nai gizakientzat, moral erkin baten ezaugarriarik agiriarena da.

## 20.—GIZONARI DAGOKION ERA BATERUNTZ

Aurrerakuntza egiteko teknikuek geroago ta geiago bearrezko badira, aurrerakuntza orretarakoxe bearrezkoagoak dira ondiño gizonaren aldeko iokera barri bat billatuko daben pensalarj sakonak. Iokera onek itxiko dautso gaurko gizonari bere burua aurkitzen, ontasunik baliotsuenak onartuaz: maitasuna, adiskidetasuna, otoitza ta zerutikoak ausnartzea (12). Olan egin al izango dau, erarik onenean, egizko aurrerakuntza, au da: bakotxarentzat eta guztientzat, gizonari ez dagokiozan bizikeratik egokj iakozanetara aldatzea.

## 21.—NORA IO BEAR DOGUN

Gizonari ez dagokiozanak: bizitzeko gitxienez bear dan lurreko andasunik-ezak; ta bere-berea baño billatu eztabenen on egiteko kezkarik-ezak. Gizonari ez dagokiozanak: ondasun edo aginpide larregi daukenetatik, edo langilleen bizkarra zapaltzetik, edo egite ez-zuzenetatik ondoren lez sortzen diran bizitza-ekandu zapaltzailleak. Gizonari dagokiozanak: bearrian gorritik bearrezkoen iaubetasunera ioatea, gizarteko zoritxarrak garaitzea, iakintza zabalagotzea, gogo-lantzeaz iaube-

ztea. Egokiago diranak: bestien duintasunarekiko lotsa ugari-tzea, gogozko txirotasun baterantz ioatea (13), guztien ona billatzeko alkartzea, bakea nai izatea. Egokiagoak ondiño: gizonak bere aldetik gorengo mallako ondasunak onartzea, euren iturri ta azkena dan Iainkoa batez be. Egokienak, azkenez eta batez be, siñismena, gizonen borondate onak onartu dauan Iainkoaren doaia ta gizon guztien Aita dan Iainko biziaren bizitzan, seme lez erdikide izatera guztioi deitzen dauskun Kristoren maitasunezko batasuna.

### III. Asiera emon bear iakon egintza

## 22.—IAINKOAK EGIÑAK, GUZTIONTZAT

«Bete lurra ta menperatu» (14): Idazteunak, bere lenengo orrialdetatik, egindako guztiak gizonarentzat dirala darakusku. Gizonak bere indar adimentsuz eta bere lanez baliotsuago ta



Lurrak dauzanak gizon guztientzat dira.


ederrago egin bear dau lurra, zelan edo alan esateko, bere menpeko ipiñiaz. Lur au bakotxari bizitzeko bear dauzanak, ta bere aurrerakuntzarako tresnak eskuratzeko egiña bada, edozein gizonak, bearrezko dauana bertan aurkitzeko eskubi-dea dau. Ondiño barri dogun Batzarrak gogoratu dau: «Lurra ta beronek dauzanak gizon guztientzat eta erri guztientzat egin dauz Iainkoak, olan be, egindako guztiak zuzentasunez guztiekana zabaldu bear dabe, goimaitasunetik banatu ezin dan zuzentasun-arauak diñoanez» (15). Beste eskubide guztiak diranak dirala, ondasunetzazko dogun iaubetasuna, ta askatasunez sal-erosketarako doguna aztu barik, lengoaren menpeko dira: eztabe ba oztopo izan bear, euren elburua errezagotuteko baño. Ta sozial eginbear astuna ta geroko ezin itxia da, len izan eben euren elburua areik ekarte.

## 23.—IAUBETZA

«Batonbatek lur onetako ondasunak badauz, eta bere anaia bearrianean ikusita, bere erraiak ixten badautsoz, olakoagan Iainko-maitasunak zelan irauñ daike?» (16). Iakiña da Eleiz Gurasoak zelako zindotasunez zeaztu daben bearrianean dagozanei buruz eukitsuek dauken eginbearra: Ambrosi deunak olan diño: «Ez da zure ondasunen zatia txirotari damotsazuna; emoten dautsazun ori berea dau. Guztiak erabilteko emona izan danaz iaubetzen zara. Lurra, mundu guztientzat



emona izan da, ez aberatsentzat bakarrik» (17). Olan ba, zerbait gaz iaubetzea ezta ba besterik ezko eskubide ikutu-ezin bat. Ezelango errazoirik eztago ba, norbere premiñak bete ta gero, beste batzuk bearrezko barik dagozanean, norberetzat bakarrik larregiak pillatzeko. «Iaubetasun baterako dogun eskubidea, itz baten esateko, Eleiz Gurasoak betidanik eta teologo andiak irakasten dauskuenez, ezin leiteke onartu guztien onaren kalterako danean». «Bakotxaren eskubide bidezkoen, eta guztien onerako bearrezko diranen artean» ondo-ez bat sor-



*Lurra guztientzat emona izan da, ez aberatsentzat bakarrik.*

tuko balitz, erri-agintariei dagokie «ebatzi bat emotea, zerikusirik daukenai eta sozial taldeei euren eritxia emotera deitu ta gero» (18).

#### 24.—ERRI-ONDASUNAK ZETARAKO

Edo anditasunagaitik, edo ganoraz erabili ezta bear dan onik ataratzen ez iakolako, erriari orrek dakartson ezbearragaitik, edo erri-ondasunak ortik artzen daben okerragaitik, ondasunak batzuen eskuetan egoteak guztien ona galerazoten dauanean, guztien onagaitik batzuetan ondasunok iaubeari kendu daitekioz. Bete-betea baieztuaz Batzarrak gogoratu dau, argi gañera (19), erri-ondasuna ezta gizonen amets zoro baten pentzuan dagon zerbait. Batzuen ona bakarrik billatzen daben asmoak baztatu egin bear dirala. Ondasun andiak iatorkezan erritarrak, erri orretako laguntzaz eta lanaz eginda baiatorkez, bakartxuen onagaitik, euren aberriari orrela iokatuaz egiten dautsen kalteaz arduratu barik, atzerrira oi dalako aberastasunak bialtzea, ezelan be onartu ezin leitekena da (20).

#### 25.—INDUSTRIARATZEA

Ondasunetan eta gizontasunean aurreratzeko bearrezko dan industriaratzea, era berean aurrerakuntzaren egille ta ezaugarri be ba da. Gizonak, bere adimenaren eta zeatz egindako lanaren bidez, izadiari apur apurka bere izkutuak azaleratzen dautsoz, aberastasunak oberako erabilliaz. Bere oiturak ezitzen dauzanaz batera, gauza barriak billatzeko ta asmetako gogo sortzen iako. Arriskuak aurrez neurtu ta onartzen dauz, ta lan barrietarako ausardia, asmo zabal barriak, eta erantzun beararren sena be sortzen iako.

#### 26.—DOMUKERI BALTZA (Capitalismo liberal)

Baña zoritxarrez, gizartearen baldintza barri onein gañean, aberastasun barria ekonomiku aurrerakuntzaren bearrezko eragille dala; norgeiago izan ekonomiaren elburua; aberastasun sortzaille diran ondasunak, eskubide osoz, ezetariko neurpen edo gizarteari buruzko bearpen barik taldetxo batzuenak dirala ikusten dauan iokera barri bat egiña izan da.

Diktadura batera garozan galga bako liberalkeri au, Pio XI-ak, erri guztiekanako diruaren nagusikeriaren sortzaille lez salatua izan zan (21). Olako nagusikeriaren aurka, ospetsu ta barriro auxe gogoratzea onena: ekonomia gizonaren serbitzurako dagola. Baña olako domukeri bati, zoritxar askoren errua, zuzentasunaren aurkako asko, ondiño agiri diran anai arteko burruken ondoren askoren errua bota baleio; ondo elitzake egongo, industriaz batera doan iokaera barri zoritxarreko orri egotzi bearreko kalteak industriaratze berari botatea. Otera, aurrerakuntza egiteko lana-eratzearen bearrezko laguntza ta industriaren aurreratzeta onartzea, bidezko da.

#### 27.—LANA

Era bardiñean, batzuetan lanaren mistika larregi iaubetuten bada, egi gitxiago ezta izango, lana Iainkoak gura izana ta Iainkoak onetsia izan dala. Beraren antzeko eginda, gizona Egilleaz lankide da izadia oneratzen, ta gizonak, artua dauan gogozko izateaz era berean lurra markau bear dau (22). Gizona ulermenduna egin dauan Iainkoak, bere lana zelan edo alan amaitzeko era be emon dautso; artista dala nai eder-egille, ugazaba, langille nai nekazari, lan egiten dauan edonor, egille bat da. Menpera-gatxa dan edozein gairi, ekintzaz antza bat irarten dautso langilleak, bera bitartean sendo, adimentsu, ta asmo andiko gizon biurtzen dala. Geiago ondiño, alkarregaz bizirik, itxaropen, neke, amets eta poztasunetan kideko izanik, lanak borondateak alkartzen dauz, gogoak urreratu ta biotzak batu; ori egiñaz, gizonak anai dirala ikusten dabe (23).



*Lanak borondateak alkartzen dauz.*



## 28.—LANAK BITARAKO BALIO

Lana benetan bitarako balio dauana da. Alde batetik dirua, alaitasuna ta aginpidea eskiñiaz, batzu norberekerira ta bes-teak iskanbillara daroazalako.

Gañera lan batean diarduenen artean zuzen asmo bat sortzen dau, eginbearraren kezka, ta urkolagunarentzat maitasuna. (Lanak) Iakitunen arauz eta obeto eratuta, langillea ezgizonago egiteko arriskua dau, gizona lanaren morroi biur-tuaz. Lana, adimenez eta askatasunez egiña ezpada, ezta gizo-narena. Ion XXIII-ak beingoan egin bearreko au gogoratu dau: bere anditasuna langilleari biurteza, alkartasuneko lan-egite baten benetan parte artu-arazota: «Artu-emonetan, egin-bearretan ta langille guztien izateran, lantokia personen al-kartasun bat izatera io bear da» (24). Baña gizonen lanak, as-koz geiago kristiñauarentzako, Paul deunak aipatzen dauan gizon bete-betea «Kristoren adin batera eltzen dana» (25) guztiok batera egi biurtzera eldu gaiten arte, ondiño amaitu eztan izadi gañetiko munduaren egintzan esku-artu bearra dau.

## 29.—LAN AU GERORAKO EZIN ITXI DAITEKE

Bizkor ibilli bearra dago. Sufritzen dagozan gizonak asko dira. Aurrera doazanen, eta geldí edo oso atzera dagozanen arteko bitarte zabala andiagotzen doa. Alan ta guzti be, bear-bearrezko dan bardintasuna apurtuta ikusi nai ezpadogu egin bearreko lana armoni baten aurrera eroatea nai ta naiezkoa da. Luginza itsumustuan erabarritzeak, elburu orren ona galdu daíke. Bat-batean industriaritzeak ondiño bearrezko di-ran erak lokatu daíkez, ta gizadiarentzat atzerakuntza andia izango litzakezan gizarte-ezbearrak sortu.

## 30.—INDARREZ IOKATZERA ZIRIKATUAK

Egia esan, zeruari be negar-eragiteko lako bidegabekeria daben egoera larriak ba dira. Bearrezkoenak eztabezan zen-bat erri oso! Asmo ta erantzunbear barik kulturán, sozial nai politika arazoetan parte artzeko edozein almen eragozten dau-tsen bearrian gorrietan bizi dirala. Giza-duintasunaren aur-kako ianbeste iraiñei indarrez aurka egiteko gogo txarra an-dia da.



Zeruari be negar eragingo leuskien egoera larriak ba dira.

## 31.—ABARROTS-MATXINADA

Alan be, iakiña da: matxinada bat sortzeak —luzaroko tirani argi batek, edonoren eskubide beiñenak, eta erritar guz-tien ona gal-zorian iartzen dauzanean izan ezik— bidebako-keri barriak sortzen dauz, oker barriak ekarri ta zoritxar ba-rriak sortu-arazi. Benetako zoritxar bat zoritxar andiago ba-tez ezin daiteke ondatu.

## 32.—ERA-BARRITZEA

Ulertu eidazue ondo: adoretu aurrea emon bear dautsa-gu gaurko egoera oni, ta beronek dakarzan ezbearrak ondatu ta menperatu egin bear doguz. Aurreratzeak, aldaketa ausar-ditsuak eta oso barrizailleak eskatzen dauz. Geiago itxaron barik, berealako aldaketak egin bearra dago. Bakotxak bere zeregiña biotz zabalez artu bear dau, batez be euren ezikera-gaitik, egoera edo aginpideagaitik egiteko almen andiak dau-kezanak. Onerako bidea emonaz, Artzaintzan anai doguzan askok egin dabenez (26), asi daitezala bakotxaren almenakaz.



M. LARRAIN ERRAZURIZ, Talca'ko (Chile) Gotzain izan zana. Euskolduna iatorriz, gure lagun aundia.

Olan gizonen itxaropenari erantzungo dautse ta Iainkoaren gogoari zintzoak izango iakez; «Barri Onaren eragiñak gizo-naren biotzean anditasun-egarri bizi bat sortu ta itxartzen daualako» (27).

## 33.—EGITE-ARAU

Bakotxaren asmoa, ta zeñek geiagoko iokoa bakarrik, au-rrerakuntza bikain bat egiteko elitzakez naiko izango. Abe-ratsak aberatsago, ta altsuak indartsuago egiteko arriskuan ezin gara iarri, onela txiroen ezbearra baieztuz, eta zapalduen talde andiarí oneik pillatuz. Bakotxaren eta bitarteko taldeen egintza «astindu, adoretu, alkartu, bete ta obetuteko» (28) egitarauak premiñezkoak dira. Lortu barri diran elburuak eta azkenerako iarri bear diran egiera-mallak, aukeratzea, ikustea, ta agintzea erri-agintariei iagoke, guztiekiko eginkizun onetan alkartutako indar guztiak era berean bizkortuz. Baña egintza onetan, nor batzuen eta bitarteko taldeen egintza asmoak kontu andiz alkartu bear dabez. Guztiak itsuan batera, edo batonbatzuen asmora iokatzerá beartzeak dauan arriskurik, orrela elitzake izango. Areik askatasuna ukatuz, dauzan esku-bide beiñenak erabiltetik aldenduko leukee (edonor).



Produziñoa ugaritzeko asmetan dan edozein egitarauk azkenaren buruan, izateko beste errazoirik eztauka personari serbitzea ezpada. Onetarakoxe da izan be: ez-bardintasanak urritzeko, banakuntzak desegiteko, ioputzatik gizona ataratzeko, lurreko ondasunetan, moralekoetan eta gogozkoetan aurreratze bat berez egin al izateko erantzumendun egille gizona egiteko. Aurrerakuntza aipatzean, gizarte-zaletasunean aurreratzeaz arduratzea beste, ekonomi-arazoan aurreratzeaz arduratu bear dala be esan nai dogu. Guztien aberastasuna, egoki danez banatutzeko ugaritzea ezta naiko. Gizaeraz lur au bizigarriago izan dedin, teknikari ugaripidea emotea ezta naiko.



*Biarko teknika agintaritzak, oker bildurgarriak sortu daitez.*

Aurrendari izan iakuzanen akatsak, aurrera-bidean doazanentzat bide-erakusle dira arlo onetako arriskuetaz iakiñaren gañean egon gaitez. Biarko teknika-agintaritzak, atzoko liberralkeriak besteko oker bildurgarriak sortu daitez. Ekonomia ta teknika, otseindu bear daben gizonarentzat ezpadira, ezetarako eztira. Gizona ezta benetako gizona, bere balioaren epaille ta bere lanen iaube dan bestean baño. Bere Egilleak emonda dauan izaeraz ta bere almen ta eskabideak askatasunez artuta.

### 35.—ESKOLATUTZEA

Era berean esan daiteke gizarte-aurrerakuntza zelakoa, aberastasunetakoa alakoa. Augaitik aurrerakuntzari buruz egitarau bat asmaukeran oñarriko eziera da lenen lortu bearrekoa. Egia esan, ianari-gosea, iakintza-gosea baño itsusigarriago ezta. Eskola-bako bat, gogoz goserik dagon bat da. Irakurten eta idazten iakitea, ogi-bidean iakintzu izatea lortzea, norbere buruagaz iaubetzea da, ta besteak beste aurrera egin leikela aurkitzea.

Teheran'en, 1965'ean Uneskotarren Batzarrari Neure itzaldian esan neutsienez «gizonarentzat eskolatzea, gizarte-arazoan osatzeko nai ta naiezko diranetakoa bat da, era berean baktaxa aberastuteko ez gitxiago; gizartearentzat aberasgarri, ta ondasunetan aurrera egiteko aparteko egille» (29). Onexegaitik, arlo onetan, batzuk eurak euretara, erri-agintariak eta erri-arteko erakundeak egin dabenaz asko poztuten naz, aurrerakuntzaren leen egilleak eurak doguz, gizona aurreratzea berez egiteko gai egiten dabelako.

Baña gizona ezta bera beteko, bizi dan inguruan baño. Inguru orretan, sendiak beste iñok egin ezin dauan eginbearra dau. Alde ta aldi batzuetan zeregin ori, baktaxaren askatasun premiñezkoenak zapaltzen ebazala geiegikeriz erabilia izan bada be. Aurrera-bidetik doazan erriak gizarteari buruz dabezan lege zaarrak estuegiak eta txarto eratuak izanda be, ondiño apur baten irauñ-araztea egoki da euren estura larregi-koa apurka-apurka lasatuaz. Baña sendi iatorrak, emazte baktarduna ta irauñkorra, Iainko-asmoak sortu eben lakoa (30), ta kristautasunak santutua, iarraitu egin bear dau. —Zertarako—. «Iakintza oso bat lortzen alkarri lagunduaz, gizarte-bizitzaren beste eskabideak, personen eskubideekaz buztartzen diarduen gizaldj ezbaridiñak baten aurkitu daitez» (31).

### 37.—BIZTANLE-ELEZTI (demografia)

Egia da askotan, ariñegiko erri-azte batek bere oztopoa erantsiten dautsela aurreratzearen problemari. Erritarrak, erri-ko ondasun-bideak baño ariñago ugaritzen dira, ta itxuraz urtekerarik eztauan bide estu baten aurkitzen gara. Neurri estuenakaz erri-azteari galga emoteko gogoa oso andia da. Egia da erri-agintadunak eskubide dauken gañoan, esku-artu daikeela egoki dan argibide bat egiñaz, ta moral legeaz batera, senar-emazteen askatasun zuzena aintzat artuta, bidezko diran neurriak artuaz. Ezkontzeko ta umeak azteko eskubide itxi-eziña barik eztago giza-duintasunik. Azkenen buruan, zergaitiak ondo neurtuta gero gurasoei dagokie zenbat ume ekarri erabagitzea; onetarako: Iainkoaren, euren buruen, mundura ekarri dabezan umeen eta euren gizartearen aurrean euren erantzun bearrak onartuaz, iator adierazi dan Iainko legearen arauz argitutako barruaren eskabideak iarraituaz, eta Iainkoagan iarrri dan uste onak eutsita.



*Gurasoei dagokie zenbat ume ekarri erabagitzea.*



### 38.—BIZIBIDEDUNEN ERAKUNDEAK

Lenengo bizibidea sendian aurkitzen dauan gizonak, aurrerakuntza arloan bizibide-erakundeetan sarri dauko laguntza. Onein zeregiñak batzarkideen asmoen aldekoak badira lenengo, egin bear leuken eta egin bear daben ezikera-lanaren aurrean zerikusit andi bat dauke. Emoten daben iakinbideen eta iakintzaren bidez guztien ona zer dan guztiei adierazi, ta guztien on orrek bakotxari zer eskatzen dautson adierazteko almen andia dauke.

### 39.—ASKOTARA IOKATZE LEGEZKO BAT

Gizarte-egintza guztiak dotriña bat dabe. Filosofi materialista ta Iainkobako baten oñarritzen dana, kristiñauak ezin onartu daikete. Arek, bizia azken elburura zuzentzea, askatasuna ta giza-duintasuna ez dauzalako errespetatzen. Ondasun orreik zutunik geldituko balitzaz, bizibidedunen eta sindikalen erakudeen askotara iokatzea onartu daiteke. Alde batetik begiratuta, egoki be ba da, askatasuna begiratzen ta norgeiagoko bat sortuarazten badau. Onexegaitik gure biotzeko goramena euren anaien alde atsegin-sari utsez lanean diarduenentzat.

### 40.—GOGO-LANTZEAN AURRERA EGITEA

Bizibidedunen erakundeaz gañera kulturaren alde diarduen taldeen lana be aipagarria da. Aurrerakuntzak ondo urteteko euren laguntza ez da kaskarragoa. «Munduaren etorkizuna gal-zorian dago, iakintza onetan gizon ikasiagoak egiten ezpadira», diño Batzarrak itz astunaz. Eta au be bai: «Ondasunetan bearrizan larrian dagozan erri askok, laguntasun apartekoa emon daikioe gañontzekoai» aberatsa nai pobrea, errialde bakotzak aurrekoetatik artuta gogo-lantze bat dauko: lurreko bizitzak asmau-arazitako erakundeak, ta gogo-bizitzaren goimallako agerkundeak, eder-lanetan, iakintzan ta Iain-



Mundu guztia irabazi ta gero bere gogo galtzen badau, Euskal Erriak zer?

koagazko artu-emonetan. Oneik egiazko giza-baliorik dauken artean, oker astuna izango litzake beste aiekaitik oneik galtzea. Ori egiten itxiko leuken erri batek, bererik daukakenik onena galduko leuke, ta bizi izateko daukazan errazoiak bizitzeagaitik galduko leukez. Kristoren irakatsia errirentzat be egokia da: «Mundu guztia irabazi ta gero, bere gogo galtzen badau, gizonak zer?» (32).

### 41.—MATERIALISMURANTZ ZIRIKATUAK

Erri aberatsakandik iatorken gaizpide onetatik bear danez begiratzeko eran iñoz eztira egongo erri txiroak. Erri aberatsak, teknika ta kultura bidetan izandako ondo-eltzeak sarriegi eredutzat ipiñirik, materiari buruz egindako irabazteak batez be iartzen dabez iarraidetzat. Gogoari iagokozan iardunaldietarako bidea berez onek eztau itxiten. Bestela «izakietatik askeago izanik, Egillea bera ezagutzera ta gurtzera errezago iaso daiteke» (33). Alan ta guzti be «gaurko zibilizaziñoak



Izakietatik askeago izanik, Egillea ezagutzera errezago iaso daiteke gizona.

berak, ez berez, egia esateko, lurrari dagokiozanai lotuegia aurkitzen dalako baño, Iainkoaganako bidea askotan gatxago egiten dau. Aukeran ipinten iakezan guztien artean, aurrerbidean doazan erriak, ezagutzen, aukeratzen, ta guzur-ondasunak aizatzen iakin bear dabe. Oneik (guzur-ondasunak) gizon beteari buruz dagon eritxi zuzena galaraziko leukee. (Erri orreik) Aurreratzeko balio iator eta ongarririk onartzen ikasi bear dabe, euren balioekaz batera, ta euren izakera berarizkoaren araura.



## 42.—AMAIERA

Gizatasun bete bat da sortuarazi bearrekoa (34). Onek gizon bakotxa ta gizon guztiak aurreratzea baño besterik zer esan gura dau? Gizatasun itxi batek, gogoaren balioak, eta arein iturburu dan Iainkoarenak onartzen ez dauzan batek, itxuraz nagusi urten daike. Egia esan, gizonak ba dau lur au Iainko barik eratzeko almena, baña «azkenaren buruan, Iainko barik gizonaren aurka doan zerbait baño besterik ezin daike eratu. Gizatasun utsa, gizonaren aurkakoa da (35). Gizatasun bat baño eztago egizkorik Osoari zabaldua: giza-bizitzaren taiuzko azalpen bat emoten dauan bokaziñoa onartzen dauana. Balioen azken araua izatetik urrin, gizona ezta bera beteko, bere marra onduten ezpadoa.

Pascal'ek ain egoki esan ebana: «Gizonak, neurri barik onduten gizona» (36).

### BIGARREN ALDERDIA

#### Gizadiaren alkartasuneko aurrerakuntzaruntz

#### SARRERA

## 43.—ERRIAK ALKARREGAZ LANEAN

Gizadia alkartasunean aurrerakuntza batera ioan ezik, gizonaren aurreratze osoa ezin egin daiteke. Bombay'n esan neban: «Gizonak gizona aurkitu bear dau, erriak alkarregaz anai-arreba lez, Iainko-semeak lez alkar aurkitu bear dabe. Alkarregazko ulertze ta adiskidetasun onetan, alkartasun zerrutar onetan era berean ekintza asi bear dogu, gizadi osoaren etorkizuna batera egiteko». Eratzeko, alkarregaz lan egiteko, era batzu billatu bearra be gogoratzen neban, eskuan geunkazan erak batera egitera iarri gintezan, erri guztien arteko benetako alkartasun bat olan egiteko» (37).

## 44.—ERRIEN ANAITASUNA

Eginbear au, lenengo ta bein, ondasunik geien artu dabena iagoke. Giza-maitasunean eta izadi-gañetikoan sustraituta dagoz euren eginbearrok, eta iru itxurapean agertzen dira: alkarri lagundu bearra, erri eukitsuek aurrerabidean doazan erriei emon bear dautsen laguntzan; gizarte-zuzentasuna egiubearra, erri indartsu ta makalen arteko sal-erosketako artu-emon okerrak zuzenduten; guztiekaz goimaitasunez iokabearra, guztiontzat, gizonari egokiago iakon mundu bat egiñaz, mundu onetan emoteko ta artzeko zerbait guztiek izan dagien. Batzuen aurrerakuntza, bestien aurrerakuntzarako eragozpena izan ez daiten. Arazo au, ondoren andikoa da, munduko zibilizaziñoaren etorkizuna beronen pentzuan dago egon be-ta.

### I. Makalei laguntza

## 45.—GOSEAREN AURKA BURRUKAN

Santiago'k diñoanez «anai edo arreba bat billosik ikusita, eguneroko ianaria ez daukenean, zuetariko batonbategen esan baleioe: «bakean ioan, berotu ta ase zaiteze» gorputzerako bearrezko iakena emon barik, zertarako iake ori?» (38) Gaur egunean, au ez iakiñean bizitzerik iñok eztau: lurralde osoetan, zenbatu ezin besteko gizon ta andra, goseak ilten dagozala.



*Errialde osoak, bearrizan naigabetsuenera galduak dira.*

Ezin dirala zenbatu, gitxiegi ianda dagozan umeak, euretatik asko ume-aroan ilten dirala, gorputzez ta adinez azi eziñik. Errialde osoak, orrela, bearrizan naigabetsuenera galduak dira.

## 46.—GAUR


Dei larriak entzunak dira. Ion XXIII gogo berroz artua izan zan (39). Neure Gabon Deian barriztau neban 1963'an, ta India'ren alde barriz 1966'an (40). Ianarritza ta nekazaritza (antolatzeko) Erri-arteko Erakundeak (FAO'k), gosearen aurka egindako lana, Erroma'k lagunduta, eskuzabaltasunez lagundua izan da. Gure «Erri-arteko Caritas»'ek edonon diardu, ta katoliku asko, gotzaintzan anai doguzanak bultzautu, beartsuei laguntzen, emoka ta ekintza onetan osoan diardue, urkolagunen ingurua gero ta geiago zabalduz.

## 47.—BIAR

Baña guzti au, ta bakarreko ta erriko batzuk egindako diru-eralgitzeak, gero ordaintzekotan itxitako ondasunak eta laguntasunak eztira naiko. Gosea kentzera bakarrik ezkabiltz, bearrizanari atzera eragiten bez. Bereala egin bearreko dan zoritxarraren aurkako lana, gitxiegi da. Au da egin bear dana: gizon guztiak, edozein enda, erlejiño ta aberrikoak, gizonari osoan dagokion bizitza egingo leukean mundua; gizonen aldetik, eta ondiño bear dan bestean menperatu eztan izaditik iatorkozan loturetatik gizona askatuta; askatasun itza, itz utsa izango ez dan mundua, Lazaro beartsua ta aberatsa mai baten



irteko lakoxea (41). Onetarako esku-zabaltasun andia, esan ezin besteko nekeak, eta atsedean bako lana eskatzen iakoz aberatsari. Bakotxari, gure aldian kezka barri bat daukon kon-  
tzientzia aztertzea iagoko. Txiroen alderako antolatu diran



*Aberatsari eskuzabaltasun andia ta atsedean bako neke ta lanak eskatzen iakoz.*

lanbideak eta ekintzak bere diruz eusteko gertu dagon? Erri-  
agintedunak, aurrerakuntza-lana geiagotu dagien, zerga geiago  
emongo leukeen? Erbestetik ekarriak, langilleari berea zuzen-  
tasunez emon al izateko garestiago erostera dagoan? Gaztea  
balitz, erri barrien aurrerakuntza oneri, daukan bearrizanean  
laguntzeko erbestera ioateko gertu dagoan?

#### 48.—ALKARRENTZAKO IOKA-BEARRA

Lagun bakotxak lez erriak be alkarregaz iokatu bearra da-  
be: «Aurrerakuntzan, burura eldu diran erriak, aurrerabi-  
dean doazan arei lagundu-bear astuna dabe» (42). Batzar Na-  
gusiaren irakatsi au egiten iarri bearra dago. Egoki bada, erri  
bateri bere lanaren bidez, Iainkoak emondako ondasunekaz  
lenen erri ori baliatzea, alan da guzti be bere aberastasunak,  
bere bearrizantxoetarako dirala bakarrik uste izaterik, iñongo  
errik ez dau. Erri bakotxak ondasun geiago ta obeak sortu  
bear dauz, lenengo beretarrei giza-bizikera egoki bat eskura-  
tzeko, ta gizadiaren alkarregazko aurrerakuntzan laguntzeko  
urren. Erri atzeratuen bearrizana anditzen ikusi ta gero, le-  
gezko eritxi bear litzakigu, erri aurreratu batek, sortzen dau-  
zan ondasunen zati bat ez-eukien premiñei laguntzeko emo-  
tea. Baita be legezko, ezitzaileak, irakasleak, teknikuak eta  
iakintsuak gertatzea, euren iakintza ta trebetasuna, arei lagun-  
tzera iarri dagien.

#### 49.—GAIÑEZKOAK

Beste bein be esan bearra dago: erri aberatsen ondasun  
geiegia erri txiroei laguntzeko izan bear dabe. Antxiña urko-  
lagunarentzat iarria egoan araua, lurbira onetako bearrizan  
guztientzat iarri bearreko da. Iokabide onen ondoren onak,  
aberatsentzat dira lenengo. Bestela, euren aspaldiko zekenke-  
riak, Iainkoaren epaia ta txiroen asarrea sortuko dau, neur-  
tzeko gatx diran ondorenak ekarriaz. Gaur loran dagozan  
errialdeak, eurena baño besterik ez ikusiaz, euren ondasun

nagusien aurka ioango litzakez, geiago izateko egarria, askoz  
geiago eukitearen gurariaz galduta. Ta ondasun asko lurra-  
k ekarten eutsan, eta ainbeste ondasun non ganbaratu ez ekian  
ipuiñeko gizon aberatsarena, eurentzako izango litzake bete-  
betea: «Iainkoak diñotso: zentzun-bakoa! Gaur gabean ber-  
tan, arima eskatuko dautsue» (43).

#### 50.—EGITARAUAK

Alegin oneik, ondoren betea izateko, sakabanatuta, banaka  
eleuke iraun bear, gitxiago ondiño aginpidea edo entzutea izate-  
reagaitik, alkarren aurka. Egoera onek egitarau alkartuak es-  
katzen dauz. Egia esan, egitarau bat, bakotxaren borondate  
onari begira ixten dan nozedonozko laguntza bat baño geiago  
ta obea da. Lenago Neuk esan nebanez (egitarau batek) onek  
bear dauz: ikastaldi sakonak, elburu aukeratuak, lanbide ia-  
kiñak, alegin alkartuak, gaurko bearrizanei ta etorkizunaren es-  
kabideai erantzuteko. Geiago ondiño: (bere elburuak) abe-  
rastasun-ugaritzearen eta gizarte aurrerakuntzaren asmoak  
baño zabalagoak dauz, egin bear dan lanari antza eta balio  
bat emoten dautsoz. Mundua eratuz, gizona goratzen dau.

#### 51.—MUNDUKO ABERASTASUN «GEIEGIEN PILLATZEA»

Aurrerago io bearko da ondiño. Bombay'n eskatu neban  
Nik, gudarako eralgitzen zan zati bataz lagundurik, ez-eukiei  
laguntzeko, mundu guztitik geiegi egoanaren pillatze bat an-  
tolatzea (44). Oraindik bearrizan larriari aurka egiteko ego-  
ki dan au, aurrerakuntzari begira be egoki da bardin. Mundu-  
tar guztien lan alkartu batek bakarrik, esandako pillatze ori  
adierazgarritzat eta alkartzeko bidetzat dauala, alperriko diran  
alkarren arteko eratsiak osatuz, erri guztien arteko alkar-iz-  
keta baketsu ta emonkor bat sortuko leuke.

#### 52.—ONEN ALDE ONAK

Zalantza barik, alde bi edo alde askodun alkarteak iraun  
daikete aurrerantzean: lege ta politiku bardintasunean oña-  
rritu ta mamituta, koloni-aroan sortu ziran nagusikeri ta ez-  
bearreko artu-emonen orde ez etorri daitezke. Baña mundu zaba-  
lekoen alkartasun egitarau baten batuta, asmo txarrerako edo-  
zein bidetik aldenduko litzakez. Ongilleen usterik-eza gitxitu-  
ko litzake. Oneik, kolonialismo barri deritxon, tekniku-lagun-  
tasun edo diru-laguntza baten itxuran estaldutako agerkunde  
batzuei, bildur gitxiago izango leuskioe; politiku indar edo  
diru-agintzearen itxurapean, nagusikeri baten billa edo alde  
doaz aiek ioan be-ta.

#### 53.—LASTER EGIN BEARREKOA

Gañera, bildurraren edo arrokeriaren ondoren diran alpe-  
rriko ondasun-eralgitze batzu gitxitzea, dalako «pillatze» orrek  
erretuko leukela nok eztau ikusten? Ainbeste erri gose dira-  
nean, ainbeste etxebizitza, bizikera larrian diranean, ainbeste  
gizon ez-iakiñean murgilduta bizi diranean, ondiño, ainbeste  
ikastola, osasun-etxe, bizileku izena iagokenak, egin bearreko  
diranean, izkutuko nai agiriko, bakarreko nai erri-osperako



egin daiteken edozein diru-eralgitze alperriko, ta guda-armetan nor geiago dan ikusteko egiten dana bardin, gaizpide debekagarri bat biurtzen da. Ni Neu salatzerantz bearturik nago. Onetan zerikusirik daukenak, berandu izan baño lenago entzun gurako al dauste.

#### 54.—ASI BEARREKO ALKAR-IZKETA

Nire lenengo Eskutitz Nagusi «Ecclesiam suam»'ean aldeztu neban alkar-izketa, guztien artean egitea bearrezko dala, esan gura dau onek. Bideak eskuratzen dabezanen, eta euretatik probetxua ataritzen dabenen arteko alkar-izketa onek, bakotzak emondakoak neurtzen itxiko dau, ez bakarrik batzuen esku-zabaltasun eta erabagiekaz bat, ezpada ze, egizko bearrizanen eta bestien eralgitzeko almenen arauz be bai. Orduan aurrerabidean diran erriak, zorrak ordaindu bearrez ondasunen zatirik onena eroanda, zorpean itota egoteko arris-



*Alkar-izketa guztien artean egitea bearrezko da.*

kurik ez dabe izango aurrerantzean. Diru-prestatzeen noizarterakoa, ta euneko onenbestez erantzunbearra, batzuentzat eta bestientzat ito barik aurrera egiteko lez iarri bearko dira. Dubango laguntzak, irabazi barik edo irabazirik gitxienaz egindako diru-prestatzeak eta ordaintza egiteko aldia, batezbesteko ipiñita. Diru-laguntzak eskuratzen dabezanei, diru ori egiz zertan eralgiko dan iakin-arazi daikioe, batak besteaz egindako alkar aitzearen arauz eta errazoizko egintza batez; alperrai eta geldoei laguntzerantz zetan ioan ezta-ta. Laguntasuna artzen dabena, euren politika-eran ez sartzea eskatu daikee, ta eurak gizarte-arazoa zuzentzeko dabena erari geldi ixtea. Estaduei, euren buruen iaube dira-ta, euren arazoak eurak euretara zuzentzea, euren politika aukeratzea, ta aukeratutako gizarte eraruntz iotea, euri dagokie. Egin bearrekoa auxeda ba: borondatezko alkartasun bat, bata besteagazko egizko alkartze bat, anditasun bardin baten, gizonarentzat egokiago dan mundu bat eraikitzeko.

#### 55.—ORREN PREMIÑA

Etorkizun lasaiago baterako gertaeko leukezan lan bat asmetako gai ez diran sendien izate osoa, eguneroko bizigarrien ardurak betetzen dauan lurraldeetan, eginbearrezko onek ezin

egiña dirudi. Alan da guzti be, gizonezko ta andrazko onexei lagundu bear iake. Onexeik argitu bear dira euren aurrerakuntza eurek egin dagien eta orretarako bideak apurka apurka lortu dagiezan. Guztion zeregin onek, aurrera eztauegingo, iakiña, alkartutako alegin iraunkor eta bizi bat barik. Baña bakotxa barru-barrutik onegaz konturatu daitela: erri ez-eukien bizitza, aurrerabidean dagozan erritarren eta munduaren bakea gal-zorian dagozala.

## II. Sal-erosketako artu-emonen zuzentasuna

#### 56.—USTE ONERAKO BIDE BAT

Aintzat artugarri diran arren, diruz eta teknikaz aurrerabidean doazan erriei laguntzeko egin diran alegiñak, utsak izango litzakez, euren ondorenak erri aberatsen eta ez-eukien arteko sal-erosketa artu-emoneko iokoak zelan edo alan galduko balebez. Erri txiroen uste ona galdu egingo litzake, esku batek damotsena, beste batek kentzen dautselakoa balebe.

#### 57.—OKERRA OKERRAGOTZEN

Erri oso industriratuak, esku-lanak batez be atzerriratzen dabez, gitxi aurreratuak osterantz, eztauke saltzekorik, lurrekoak eta bearbearrezko gai batzuek izan ezik. Tekniku aurrerakuntza bide dala, lenengokoak bereala jasotzen dabe euren balioa, ta nun sartu naiko aurkitu be bai. Erri atzeratuetatik datozen salgaiak osterantz, bearrezkoenak izanik, bat-bateko aldaketa zabalak dabez sal-neurrian, geroago ta geiago baliotze orretatik guztiz urrin. Erri gitxi-industriratuentzat oztopo larriak datoz ortik, eurak salgai dabezanetatik euren ekonomiaren galtzeak ornidu bear dabezanen ta aurrerakuntza asmoa egi biurtu. Erri ez-eukiek bearrizanean dagoz beti, aberatsak bienbitartean aberatsago egiten dirala.

#### 58.—LIBERALKERIA BAÑO ARAGO

Baten esateko, aske-trukearen araua ezin da erri-arteko artu-emonen gidaritzat artu. Bere alde onak ezagunak dira benetan, alderdien artean diru-almenak bardin antzekoak diranean: aurrerakuntzarako bultzagarri ta alegiñaren sari da. Au bide dala, industrian aurreratutako erriak iokaera zuzentzat dauke a. Baña erririk errira ezbardintasunak andiegiak diranean, orduan ezta bardin. «Askatasunez» sal-erosketan egiten diran sal-neurriak, ondoren bidebakoak eroan daikeez eurekaz. Olan dala, «liberalkeriaren» oñarririk beiñena da emen, sal-erosketako artu-emonen arau lez, loka dagoana.

#### 59.—ERRIEI BEGIRA GAGOZALA, KONTRATUEN ZUZENTASUNA

Leo XIII-ak «Rerum Novarum»'ean irakatsia, gaurko beba da: Alderdien baietza, egoera ezbaridiñegietan emona bada, ezta naiko kontratua zuzen egiña dala baietzeko; aske emondako baietzaren lege-araua izadi eskubidearen eskabideen menpeko da (45). Bakotxaren lan-sari zuzenari buruz egi zana, erri-arteko kontratuei buruz be egi da. Alkarren truke-



ko ekonomi bat, norgeiagoka aske baten, legearen gañean bakarrik ezin daiteke oñarritu. Sarriegitan sortu-arazoten dau onek ekonomi-diktadura bat. Trukatze-askea gizarte-zuzentzaren eskabideai lotua dagoanean da zuzena bakarrik.

#### 60.—ARTU BEAR DIRAN NEURRIAK

Osterantzean, erri aurreratuak eurak be ulertu dabe au: euren ekonomiaren altzoan neurri egokiekaz alegintzen diralarik, bere iokera askera itxita, norgeiagokak gal-zorian iartzen dauala egokitasuna. Olan jazoten da sarri askotan, euren lurgintza aurrera egiteko, oparago bizi diran taldeai ezarten dautsez zergak. Era berean, euren artean dabezan sal-erosketa artu-emonak iraun-arazoteko, batez be erri-arteko azoka baten barruan, euren politika salataria, gizartekoa ta ekonomikoa, irabazte ezbaridiñak dabezan industrilariei, irabazpide bardintsuak eskuratzeko alegintzen dira.

#### 61.—ERRI-ARTEKO ITUNA (alkartasuna)

Pisu ta neurri bi emen erabiltea elitzake ondo egongo. Erri-ekonomi batentzat egoki dana, erri aurreratuek ontzat artua, erri aberats eta erri txiroen arteko sal-erosketa artu-emonetarako be egokia da. Norgeiagoko azoka kendu barik, zuzen eta bidezko, eraberean giza-legezko egiten daben neurrietan aurrera atara bear da. Sal-erosketan, ekonomi aurreratuen eta atzeratuen artean egoerak banatuegiak dira, ta egizko askatasunak ezbaridiñegiak. Erri-arteko sal-erosketa gizonarentzat egokia ta zuzena izateko, gizarte-zuzentasunak eskatzen dauanez, aldean artean egikeratarako bardintasun gitxienez egitekoa izan bear dau. Azkeneko au geroan lortzekoa da. Baña orretara eltzeko bearrezkoa da oraindik eztabaidetan eta alkarregazko artu-emonetan egizko bardintasun bat egitea. Emen be bear dan besteko zabaltasunez egindako errien alkar-aitzeak egokiak litzakez. Oneik ezarriko leukeez guztientzako iokabideak, sal-neurri batzuk araututeko asmoz; sortu-bearreko batzuk aldeztuteko, ta industri sortu-barri batzuk eusteko. Errien arteko sal-erosketa artu-emonetan zuzentasun andiago baterantz, dalako guztien alegin batek, aurrera-bidean doazan erriei laguntasun baliotsu bat ekarriko leuskiela nok eztau ikusten? Ta alegin orren ondorenak, oraingo ez-eze geroan be irautekoak izango litzakezala?

#### 62.—ABERTZALEKERIA

Ba dira beste eragozpen batzuk be mundu zuzenago ta egokiago bat, gizadiaren alkartasunaren altzoan egiteko: abertzalekeria ta endazalekeria dirala-ta itzegin nai neuke. Askatasun-politika batera oraintsu ekdutako errialdeak, ondiño indarge dauken aberri-batasun baten egarri izatea, ta berori aldeztuten alegintzea legezko da. Bidezko da era berean aspaldiko gogo-lantze bat daben aberriak, istoriak eurengandu dautsen ori dala-ta arrotasun bat izatea. Baña legezko diran iokabide oneik gizadiko sendiaren atal guztiak artzen dauzan guztientzako maitasunak ondu bear dauz. Abertzalekeriak erriak banatzen dauz, euren egizko ona danaren aurka. Kaltegarri izango litzake batez be, aurrerakuntza-egitarauak egi biurtzeko ta jakintza ta sal-erosketako artu-emonak ugaritzeko, alegiñak, ezaupideak eta diru-ondasunak batean ipintea erri-ekonomi indargeak eskatzen dauan lekuetan.

#### 63.—ENDAZALEKERIA

Zuzentasunari kalte andi bat egiñaz eta erri bakea galzorian ipiñiaz, mordotxo batzuen eta Politiku Alderdien ikusi gurez batzuetan estaldurik erri gazteetan nozedonoz agertu arren, ezta euren zertxobait endazalekeria. Koloni-aroan, atzeritik on-billa etorritakoen eta erriko seme iatorrizkoen artean, sarritan egin izan dau orma banatzaille bat. Buru argiz egingako alkar-aitze bateri eragozpenak ipiñi dautsoz eta egizko bidebakokeriekaz gorroto ugari sortu-arazi be bai. Alkarregaz lan egiteko eragozpen bat, erri ez-eukien artean, eta banakuntza eta gorrotoen azia Estaduen barruan. Guzti ori, nor dan edonoren eskubide galdu-eziñak zapalduz, persona ta sendiak, euren enda edo margoa dala-ta aparteko agintzakeria batek bigabekeriz menperatzen dauzanean.

#### 64.—MUNDUKOEN ALKAR-ARTZE BATERANTZA

Etorkizunarentzat zemaiz beterik dagoan egoera onek barru-barrutik samintzen nau. Alan be ba dot itxaropen bat: alkarregaz lan egiteko bearrizan bizi batek, ta alkartasuna biotzeragotzeak alkar aitu eziñei, ta norberarena baño ez billatzeai geiago egingo dautsela. Uste dodanez, ondiño naiko aurreratu barik dagoan erriak, auzo erriei onurea atarako dautse, euren artean, lurralde zabaletan alkar lanez aurrerakuntza egiteko



CARDIJN ioan iaku, alkartasunaren alde naiko lan eginda. G. B.

tokiak eratuaz. Alkarregaz lan egiteko erak iarri daitekez, diru-eralgitzeak batera egin, zer barriak egiteko almenak banandu, bata besteaz trukatzek antolatu. Alde askodun eta erri-tarteko erakundeak, antolaketa barri premiñezko baten bidez, uste dot aurkituko dabezala atzeratuta dagozan erriak, itxuraz urteera barik dagozan tokietatik urten al izateko bidea. Olan euren ekiñez, daben izakera apartekoari zor dautsen zintzotasunean aurkituko dabez gizonari dagokion euren gizarte-aurrerakuntza egiteko bideak.




## 65.—ERRIEK EUREN ETORKIZUNAREN EGILLE

Lortu bear gendukena orixe da, izan be: egunero egiten diarduguna, munduko guztien batasunak, erriak, eurak euretara euren etorkizunaren egilleak izatera eldutea egin bear dau. Ioandako aldietan, errien artean indarkeriz izandako artu-emonen lorratza agiri da. Eldu beite onezkeru, errien arteko artu-emonak, alkarregazko lotsaz eta adiskidetasunaz, bata bestea aintzat artuta egindako lanaz, ta bakotxaren ardurapean guztien aurrerakuntzaz, iantzi daitezana eguna. Erri gazteenak edo makalenak, eskubideai eta bakotxaren elburuari itzal andiagiaz begiratu daikeon mundu obe bat egiteko eskuartze eragikor baten eske dagoz. Eskabide au bidezkoa da: bakotxaren ardurapean dago ori entzutea, ta orri iaramon egitea.

### III. Guztientzat goimaitasuna

## 66.—ANAITASUNIK EZ

Mundua gaixorik dago. Bere gatxa, almenak alperrik galtzea, eta batonbatzuek aiek pillatzean baño geiago, gizonen eta errien arteko anaitasunik ez izatean dago.



*Mundua gaixorik dago anaitasunik eztagolako.*

## 67.—ATZERRITIK ETORRITAKOAK ONARTU BEARRA

Eneuke iñoz naikorik esango, sendiaj bestean, atzerritarak artzen dabezan errietako kultura-erakundeai dagokien arrotzak maitatzea, guztiekaz alkartzea, eta kristau goimaita-

suna egin bearra dirala-ta. Bearrezko da batez be, gazteak artzeko egonleku ta bizilekuak ugaritzea. Au, bestien ganetik, zuzentasun-oñarri guztiak apurtzen dauzan bakartade, bertan bera itxita aurkitzetik ta naigabetik aldeztuteko. Euren aberrietako bearrian gorria, inguruan sarritan ikusten daben apaindura ta diru-eralgitze alperrikoaz konparatzera beartuak diranean, aurkitzen diran gaitzpideko egoeraren aurka zaintzeko be bai. Eta, era berean iokera badaezpadakoei, eta ainbeste «merezki bako bearrian larri» gogoratuta, aurka egiteko iatorkezan zirikaldiei lekuri emon ez daioen. Batez be azkenez, anai lez artutearen berotasunaz bizitza iator, kristau goimaitasun benetako ta egillearen ta gogo-balioen estimaziñoren eredia eskeintzeko.

## 68.—IKASLE GAZTEEN ORDU LARRIA

Au gogoratzea mingarria da: gazte askok erri aurreratua-goetara euren aberriarentzat laguntasun lez iakintzan geiago izatera ta giza-lantzea artzera etorriak, ezitze goragoko bat artzen dabena egia da. Alan be sarriegi galtzen dabez ondasun lez askotan, azi diran lurralde areitan aurkitzen diran gogoder lez askotan, azi diran lurralde areitan aurkitzen diran gogo balio batzuk.

## 69.—ERBESTETIK ETORRITAKO LANGILLEAK

Gizonari ez iagokozan eratan sarritan aurkitzen diran langille erbesteratuei be, arrera bardiña eskeiñi bear iake. Lan-saritik aurreratzen dabe zerbait, euren aberrian bearrian estuan aurkitzen diren euren sendiei laguntzeko.

## 70.—GIZARTEAZKO ARDURA


Nire bigarren eskabidea, oraintsu idustriratu diran errietara euren aberaspideak bultzatzen dauzan aientzat da: industrigille, sal-erosle, edo enpresa aundien gidari nai ordezkotzat. Sarritan gertatzen dana: euren errian ba dabe gizarte-auziaren kezka. Zer dala-ta norberekeriaren iokaera bidebakoetara atzera egin, errialde atzeratuagoetan lanean diarduenean? Euren gorago egote orrek, gizarte-aurrerakuntzaren eta gizona iasotzearen asiera-emoille biurtu bear leukez, euren irabazpideak daroakezan tokietan. Antolatzeko eurak daben asmamenak, erriko seme iatorren lana balio-arazteko bideak asmau-arazi bear leuskioez: langille ikasiak egiñaz, nok-irakatsi ta bitarteko agintedunak gertauaz, onen asmoai iaramonaz, ardura geiago lantokietan apurka sartu-araziaz, geroago-txuan gidaritzaren arduratan eskuartzeko gai izan daitezana. Nagusi ta menpekoen artu-emonak, zuzentasunak eratu daizala beintzat. Batzuen eta bestien eginbearrak, ondo egindako alkar-aitze batzuk ebatzi dagiezala. Euren egoera, olako edo alako izan, ez daitela ezertxo egon, bidebako kasketaldi bateri areik menperatzeorik.

## 71.—AURRERAKUNTZA-LANERA BIALDUAK

Geroago ta geiago dira, asko poztuten nau onek, aurrerakuntza-lan bat egitera, erri-arteko irazkundeak edo alde bitarakoak, edo taldetxo batzuen legediak bialdutako teknikuak: «Azpiratzailleak lez ez begie iokatu, laguntzaille ta lankide lez baño» (46). Beingoan daki erri batek, laguntzen iatorko-



zanak, on egiten ala on-billa, teknika batzuei ala gizonari bere balio osoa emoten datozan. Eroaten doazena, anai-arteke maitasuna lagun dala ezpadoaz, ez artzeko arriskuan gelditzen da.



*Irakatsia, maitasuna lagun dala ezpadoa, ez artzeko arriskuan gelditzen da.*

## 72.—TEKNIKADUNEN ALDE ONAK

Bearrezko dan teknika-iakintzaz gañera, irabazte bategaitik eztan maitasun baten probak bearco dabez. Abertzale arrokeritik eta endazalekeri itxura daukaken edozer alde batera itxita, guztiekaz alkartasun estu baten lan egiten ikasi bearco dabe teknikadunak. Ba dakie, euren nagusitasunak edozertan nagusi egiten ez dauzana. Gizon egin dauzan erriko ezikerak, mundu guztirako ongari diran zer batzuk dauz, baña ezikera ori bakarra ta besterik ezezkoa ezta, ta ezin daiteke erbesterratu, arakotu barik. Zeregin orretara doazanak, benetan aleginduko dira, istoriaz eta nortasun ezaugarriakaz batera, artzen dauzan erriaren gogo-lantze aberastasunak aurkitzeko. Onegaz egingo da erri bata ta bestea aberastuteko alkar eza gutze bat.

## 73.—ERRI-IZAKERAEN ARTEKO ALKAR-IZKETA

Personen artean lez, erri-izakeraen arteko alkar-izketa zintzoa, anaitasun-egillea da. Aurrerakuntza arloak, guztien alegiñak billatzen dauzan egintzatan erriak urreratuko dauz, guztiak, agintarietatik eta euren ordezkotatik asi ta teknikurik apalenara artekoak, anai-arteke maitasun batek badarabiz; eta mundukoen alkartasuna sortu-arazten dauan ezikera ta izakera bat egiteko gurari zintzo batek bultzatzen badauz. Tekniku era bat, edo arek sortua, oñarriztat artu barik, gizona beinzentzat artzen dauan alkar-izketa bat asiko da orduan. Ongari izango da, beragaz onuratzen diran erriei, goratzeko ta gogoari dagokiozanak onartzeko bideak eskuratzen badautsez; teknikuek ezitzaille egiten badira, emoten diran irakatsiak, ez diruari begira bakarrik gizonari begira egindako aurrerakuntza bat gerizatzeko lako espirituari ta moralari dagokion alde onagaz iantzita badagoz. Tekniku-laguntza ioan ta gero be

olan iarritako artu-emonak iraungo dabe. Munduko bakearentzat orduan onek izango dauan garrantzia, nok eztau ikusten?

## 74.—GAZTEERI DEIA

Pio XII-ak laikuen apostolutzarako egindako deiari, gazte askok erantzun dautsoe kemen eta biotz osoz (47). Iñok beartu barik, aurrera-bidean doazan erriekaz lan egiteko erakunde ofizialen eta bakarrekoen esanera iarrri diranak be asko dira. Alaitasun bizi bat daukot errialde batzutan, aldi baterako beintzat «gudaritza», «gizartearen laguntza» biurtu dala ikitean. Asmo oneik eta aurrera daroezanen borondate ona bedeinkatzen dodaz. Oba, Kristorenak dirala diñoen guztiak, Bere deia entzungo balebe: «Gose nintzan eta iaten emon zeunsten; egarri nintzan eta edaten; atzerriratu nintzanean, artu ninduzuen; billosik nengoala, iantzi; geixorik nengoala, ikusten etorri zintzazaten; espetxean nengoala, araxe etorri ziñien» (48). Bearrizanetan itota, iakin-ezaren erpetan ziurtasunik-ezak estuturik anai askok dauken zoria ikusirik, eskuak sakelean ezin gelditu geintez.

Kristoren biotza lez kristauarena be, ainbeste ezbear ikusita, samurtu egin bear da: «Giza-talde oni erruki naiako» (49).

## 75.—OTOITZ ETA LAN

Guztion otoitz ondo egiña iasot bear dautsogu Alguztidunari, gizadia, ainbesteko zoritxarrak ikusi ta gero, oneik kentzen, asmoz eta egiñez alegindu daiten. Otoitzari, bakotxaren ekintza erantsi bear dautsogu, geure almen eta indarren neurrian, atzerakuntzaren aurkako ekintza. Gizaki bakotxak, gizarte aldezlari taldeak eta erriek, anaitasunez emon begioe eskua alkarri, indartsuak bere balio guztia, adorea ta maitasun garbia, indargeari burua iasoten laguntzeko erabilliaz. Iñor baño geiago, goimaitasun batek bultzaturik dabillena, bearri-zanaren sustriak aurkitzeko, aurka ari egiteko bideak billatzeko, ta bildur barik a menperatzeko buru argikoa da. Bakearen lagun, «bere bidetik ioango da, alaitasun dariola, lurbira osoan, gizonen biotzetan argia ta eskarra ixuriaz, erri-muga guztien gañetik, anaien aurpegia, adiskideen aurpegia aurkitu-arazten» (50).



*«Gizatalde oni erruki naiako». (Pasolini-ren pelikulako Kristoren irudia)*





AZKENA

#### AURRERAKUNTZA BAKEAREN IZEN BARRIA DA

#### 76.—BAKEA, ZUZENTASUNAK DAKAR

Ekonomi, gizarte ta gogo-lantzea, errien artean ezbar-diñegiak izateak, asarreak eta iskanbillak sortu ta bakea gal-zorian ipinten dau. Batzarreko Eleiz Gurasoei, ONU'n izan ta gero esan neutsienez, aurrera-bidean doazan errien egoera, lenengo begiratu bearrekoa dogu. Obeto esan, munduan dagozan ez-eukientzat, ta zenbatu eziñeko beste dira, gure mai-tasunak arretatsuago, eragikorrago ta esku-zabalagoa izan bear dau. Ezbear eta bidebakokerien aurka diarduenak, onik andiena ekarriaz batera, gorputz eta arimako guztion aurrera-kuntza, ta gizadi osoaren ona be ba dakar. Bakea, gudarik ez izate utsa, indarren betiko ez-bardintasunaren ondorena ezta. Bakea egunero egiten da, Iainkoaren asmoak egiñaz, gizonen artean zuzentasun beteago bat agertuaz (51).

#### 77.—BAKARTEDETIK ALDE

Euren aurrerakuntzaren egille, erriak dira aren lenengo arduradunek. Baña bakarrik ezer ezingo dabe egin. Alkarri eutsiten lagunduteko erri ez-eukien arteko errialdeen alkar-aitzeak, euren laguntzara etorteko alkar-aitze zabalagoak, batzuen eta bestien arteko onena dana egiteko alkartzeak, guz-tiek egiñiko egitarau batzuk ezarrita, bakera daroan aurrera-kuntzako biderako malladiak dira.

#### 78.—MUNDUARENTZAT AGINTARITZA ON BATEN BILLA

Munduari laguntzeko erri-arteko alkartze onek, gertatzeko, atontzeko ta zuzentzeko erakunde batzuk bear dauz, mundu guztian onartutako legedi bat egin arte. Biotz biotzetik maite

doguz aurrerakuntzarako alkartze au egiten alegindu diran erakundeak, ta gura dogunez asiko al da euren aginpidea. Erri Alkartuetako ordezkoei esan neutsien New York'en: «Zuen zeregiña anaiak egitea da, ez bakarrik erri batzuetan, erri guztietan baño. Lege-arloan eta politikan eskubide osoz lan egiteko lako mundu guztirako agintaritza bat iartera, apur-ka-apurka elduteko dagon premiña, nok eztau ikusten?»

#### 79.—MUNDU OBE BATEN OÑARRITUTAKO ITXAROPENA

Itxaropen oiek, batzuen ustez ametsak dira. Egizko izate sendo sendorik ez eukitea ba daiteke, baita anaitasun andiago baten bizi gura dauan mundu baten bizitasunaz ondiño uste ori dabenak ez konturatzea. (Mundu au) Bere iakin-ezak, okerrak, obenak, basatikerira biurtzeak, salbaziñoko bidetik alde urriñeko galtzea gorabera, nai-ta konturatu barik, astiro astiro Bere Egilleaganantz urreratzen doa. Gizatasun sentikera geiago ta obeetarantz doan bide onek, alegiña ta nekea eskatzen dauz; baña gure anaien alderako onartu dan neke ori gizadi sendi osoarentzat aurrerakuntza ekarle da.

Kristiñauk ba dakie, Salbatzaillearen opariaz alkartzea, Kristoren Soin bete-betea: Iainkoaren erri alkartua egiteko laguntasuna dala (52).




Anaitasunez emon daiogun eskua alkarri, indargeari burua iasoten laguntzeko.



## 80.—GUZTIOK ALKARREGAZ

Ibillaldi onetan, guztiok gara bide-lagun. Guztiok gogoratu gura izan dautsuet egin bear dan lanaren zabaltasun baltza, ta premiña. Lanerako orduak io dau: errubako ainbeste



*Lanerako orduak io dau.*

umek bizitzen irautea, zoritxarreko ainbeste sendiren bizitza egokiago batera eldutea, munduko bakea, erriaren bizitzaren etorkizuna gal-zorian dagoz. Gizon guztiak eta erri guztiak, euren ekintza onartu bearra dabe.

### AZKEN DEIA

## 81.—KATOLIKOAK

Lenengo ta bein, Neure seme guztiei deitzen dautset. Aurrrera-bidean doazan errietan, bestietan baño gitxiago ez, laikuak, erri-gizonak euren arazo lez leporatu bear dabe lurrekoen egoera barriztatzea. Eginbear onetan iarraitu bear diran bide artezak egoki danez irakastea ta adieraztea Eleiz Gidari-ri baiagoke, laikuena da ostera, asmo barri lotu bakoaz, agindu ta goitiko asmoak etorteko zain egon barik, burubide ta oiturak, bizi diran erriko lege ta bizikerak kristautasunez betetzea. Aldakuntzak bearrezkoak dira, sakoneko barriztatzeak nai ta naiezkoak: Barri Onaren antza arei emoten buru-biotzez alegindu bear dabe. Ondasunik geien daben errietako Neure seme katolikuei auxe eskatzen dautset: Erakunde ofizial edo bakarreko, erriko nai Elizakoetan, aurrerakuntza-bidean doazan errietako eziñak egin daitezcan alegintzen diranei, euren almena ta ekintzan eskuarte eskeiñi daioezala. Ziur

nago, bizitzako gorabera egizkoei, zuzentasun eta ontasundun, erri-arte moral bat emoteko lanean diarduenen artean aurrerari izateko alegin guztia egingo dabela.

## 82.—KRISTIÑAU ETA SIÑISTEDUNAK

Gure kristiñau anai guztiak, ziur nago onetan, guztiek batera ondo eraturako euren alegiña zabalduko dabela: norberekeria, arrokeria ta asarreak menperatzen munduari laguntzeko; anbiziñoak eta bidebakokeriak goitu daizan. Gizonari dagokion bizitzarako bideak guztiei zabalduaz, mundu orretan edonor maitatua ta lagundua izan daiten, bakotxaren urko-lagun eta anai lez. Gaur ondiño, Bombay'n kristau ez tiran gure anaiekaz izandako alkar-aurkitzea aztu-eziñaz biozkatuta, barriro be lanera deitzen dautset euren buru ta biotz osoz, gizonen seme-alaba guztiek, Iainko-semeei dagokien bizitza egin al izateko.

## 83.—BIOTZ ONEKO GIZONAK

Azkenez, biotz oneko gizon guztiei deitzen dautset; bakerako bidea aurrerakuntzatik igarotzen dala dakienai. Erri-arteetako erakundeen arduradun, erri-agintariak, barri-emoilleak, ezitzaileak, guztiok, bakotxak zeuon lekuan mundu barri baten egilleak zeuok zaree. Nik Neuk, Iainko Alguztidunari, zuen adimenentzat argia eskatzen dautset; ta erri-eritxia itxartzeko, ta erriei bizitzeko poza emoteko, indar barriak eta adorea emon daizuezala. Ezitzaileoi dagokizue, bearrian gorrian aurkitzen diran errienganako maitasuna ume-arotik bertatik sortzea. Barri-emoilleon lana: erri-arte alkar-laguntza egiteko egin dan alegiña gure begien aurrean ipintea; era berean, euren barruko arra ixillarazteko, gizonak aztuten alegindutzen diran ezbearrak agertzea. Aberatsak iakin dagiela gitxienez, ez-eukiek atea ioka diarduela, euren maietako ogi-apurraren zain.



*Chile'ko Lendakari FREY Jauna Paul VI-nagaz.*



Erri-agintarion zeregiña da, zuen erriak mundu guztikoez egizko alkartasun batera bultzatzea; batez be onartu da giezala, aurrerakuntzaren alde, ta bakea izateko, euren apainduren eta diru-eralgitzen bearrezko gitxitzea. Erri-arteko erakundeen buru zarienoi: zuen eskuan dago, indarrak alkarren aurka erabiltearen alperriko arriskuaren orde, adiskidetasunezko alkartze, baketsu ta interesbako bat sortzea: alkarregaz egindako gizadiaren aurrerakuntza bat, gizon guztiak beragaz aurreratze lako bat lortu daiten.

## 85.—IAKINTSUAK

Ta mundua asmoen urritasun mingarri baten dagona egi-egia bada, Nik dei bat egiten dauset pentsalari ta iakintsuei, katolikuei, kristauei, Iainkoa gurtzen dabenai, osoaren, zuzentasunaren eta egiaren egarri diranei: borondate oneko gizon guztiei. Kristoren antzera eskabide sutsu bat egiten ausartzen naz: «Billatu, ta aurkituko dozue» (53), alkartasuna, iakintzan sakontzea, ta biotz-zabaltasuna bide dirala, egiz gizon guztiekaz egindako alkartasunean, anai-arrebaen antzerako bitzita batera elduteko bideak artu egizuez.

Zuek, sufritzen daben errien deia entzun dozuen guztiok, erantzuna emotearren lanean diarduzuenok, zuok zarie egizko aurrerakuntza iatorraren kezka zabaltzera bialduak. Aurrerakuntza ori eztago aberastasun pillatze berez billatuan, gizonaren aldeko ekonomi baten, guztiei banatutako eguneroko ogian, Iainko-ardurearen ezaugarri ta anaitasunaren iturburu dan onetan baño.

## 87.—ONESPENA TA AZKEN DEIA

Biotz guztitik bedeinkatzen zaituet, eta anaitasunean zuekalkartu daitezcan gizon guztiei deitzen dauset. Aurrerakuntza bakearen izen barria bada, nok eztau indar guztiekaz ori lortzeko lan egin gura izango? Bai, guztioi deitzen dauset Iainaren izenean, gure dei larriari erantzun daiozuen.

Batikano'n, 1967'ko Martiak 26, Pazko Eguna

PAUL VI AITA SANTUAK

## OARRAK

(1) 1951'ko Bagillaren l'ean, *Rerum Novarum*'en 50-garren urteurrenez irratiz egiñiko itzaldia, AAS 33 (1951), 195-205 orrild.; 1942'ko Gabonetako irratiberbaldia, AAS 35 (1943), 9-24 orrild.; *Rerum Novarum*'en urteurrenez langilletalde bateri egiñiko berbaldia, 1953'ko Maietzaren 14'an, AAS 45 (1953) 402-403 orrild.

(2) *Gaudium et Spes*, 63-72 zenb., AAS 58 (1966), 1084-1094 orrild.

(3) «Motu proprio» *Catholicam Christi Ecclesiam*, 1967'ko Urtarrillaren 6'an, AAS 59 (1967), 27 orrild.

(4) *Rerum Novarum* Eskutitz Nagusia, 1891'ko Maietzaren 15'an, *Acta Leonis XIII*, XI t. (1892), 98 orrild.

(5) *Gaudium et Spes*, 63 zenb., 3 §.

(6) *Ikus Lc.*, 7, 22.

(7) *Gaudium et Spes*, 3 zenb., 2 §.

(8) *Ikus Inmortale Dei* Eskutitz Nagusia, 1885'ko Zemendiaren l'an, *Acta Leonis XIII*, V t. (1885), 127 orrild.

(9) *Gaudium et Spes*, 4 zenb., 1 §.

(10) L. J. LEBRET, O. P., *Dynamique concrète du développement*, Paris, *Economie et Humanisme*, Les éditions ouvrières, 1961, 28 orrild.

(11) *2 Tes.*, 3, 10.

(12) *Ikus*, adibidez, J. MARITAIN, *Les conditions spirituelles du progrès et de la paix, Rencontre des cultures à l'UNESCO sous le signe du Concile oecuménique Vatican II*, Paris, Mame, 1966, 66 orrild.

(13) *Ikus Mt.*, 5, 3.

(14) *Gen.*, 1, 28.

(15) *Gaudium et Spes*, 69 zenb., 1 §.

(16) *1 Jn.*, 3, 17.

(17) *De Nabuthe*, 12 k., 53 zenb. P. L., *Ikus* J. R. PALANQUE, *Saint Ambroise et l'empire romain*, Paris, de Boccard, 1933, 336 orrild, ta urrengoak.

(18) Brest'eko Gizarte Aste'ra eskutitza, *L'homme et la révolution urbaine'an*, Lyon, Gizarte Barriak, 1965, 8-9 orrild.

(19) *Gaudium et Spes*, 71 zenb., 6 §.

(20) *Ikus*, *ibid.*, zenb., 3 §.

(21) *Quadragesimo Anno* Eskutitz Nagusia, 1931'ko Maietzaren 15'an, AAS 23 (1931), 212 orrild.

(22) Lyon'eko Gizarte Aste'ra bialdutako eskutitza, *En le travail et les travailleurs dans la société contemporaine*, Lyon, Gizarte Barriak (1966), 6 orrild.

(23) *Ikus*, adibidez, M. D. CHENU, O. P. *Pour une Théologie du Travail*, Paris, Editions du Seuil (1955).

(24) *Mater et Magistra*, AAS 53 (1961), 423 orrild.

(25) *Ej.*, 4, 13.

(26) *Ikus*, adibidez, MONS. M. LARRAIN ERRAZURIZ, Talca'ko (Chile) gotzaiña, Celam'eko lendakaria, *Carta Pastoral. Desarrollo: éxito o fracaso en América Latina*, 1965.

(27) *Gaudium et Spes*, 26 zenb., 4 §.

(28) *Mater et Magistra*, AAS 53 (1961), 414 orrild.

(29) *L'Osservatore Romano*, 1965'ko Iraillaren 11'an, *Documentation catholique*, 62 t., Paris, 1674-1675 kol.

(30) *Ikus Mt.*, 19, 6.

(31) *Gaudium et Spes*, 52 zenb., 2 §.

(32) *Ibid.*, 15 zenb., 3 §.

(33) *Gaudium et Spes*, 57 zenb., 4 §.

(34) *Ikus*, adibidez, J. MARITAIN, *L'humanisme intégral*, Paris, Aubier, 1936.

(35) H. DE LUBAC, S. J., *Le drame de l'Humanisme athée*, 3'gn. argitaldia, Paris, *Spes*, 1945, 10 orrild.

(36) *Pensées*, ed. Brunschvicg, 434 zenb. *Ikus* M. ZUNDEL, *L'Homme passe l'Homme*. Le Caire, Editions du Lien, 1944.

(37) 1964'ko Gabonillaren 3'an ez-kristiñau erlijioen ordekoeri berbaldia, AAS 57 (1965), 132 orrild.

(38) *Santiago*, 2, 15-16.

(39) *Ikus Mater et Magistra*, AAS 53 (1961) 440 orrild. ta urrng.

(40) *Ikus L'Osservatore Romano*, 1966'ko Zetillaren 10'an, *Encicliche a discorsi di Paolo*, VI, IX vol., Roma, ed. Pauline 1966, 132-136 orrild.

(41) *Ikus Lc.*, 16, 19-31.

(42) *Gaudium et Spes*, 86 zenb., 3 §.

(43) *Lc.*, 12, 20.

(44) *Munduari Deia*, 1964'ko Gabonillaren 4'an barriemolleeri eskuratua, *Ikus* AAS, 57 (1965), 135 orrild.

(45) *Ikus Acta Leonis XIII*, XI t. (1892), 131 orrild.

(46) *Gaudium et Spes*, 85 zenb., 2 §.

(47) *Fidei Donum* Eskutitz Nagusia *ikus*, 1957'ko Jorrraillaren 21, AAS 49 (1957), 246 orrild.

(48) *Mt.*, 25, 35-36.

(49) *Mc.*, 8, 2.

(50) *Ion XXIIren itzaldia*, 1963'ko Maietzaren 10'ean Balzan saria emon eutse-  
nean, AAS 55 (1963), 455 orrild.

(51) *Ikus Pacem in terris* Eskutitz Nagusia, 1963'ko Jorrraillaren 11, AAS 55 (1963), 301 orrild.

(52) *Ikus Ej.*, 4, 2; *Lumen Gentium*, 13 zenb.

(53) *Lc.*, 11, 9.



# GAIAK NON AURKITU

- Aberatsak (32)**  
**Aberastasunak bardin banandu (34)** — Distribución equitativa de las riquezas  
**Abertzalekeria (68)** — Nacionalismo (en sentido peyorativo)  
**Adiskidetasuna (65)**  
**Agintekeria (21)** — Tiranía  
**Aita Santuak irakasten (2)**  
**Aita Santuaren osteratxoak (4)** — Viajes pontificios  
**Alkar egintza (1)** — Acción solidaria  
**Alkarregaz aurrerakuntza (43)** — Progreso solidario  
**Alkarri otsa izatea (65)** — Respeto mutuo  
**Alkar aitzeak (52)** — Acuerdos mutuos  
**Alkar aitzeak (errien artean) (77)**  
**Alkar lana: Eleiz eta erri-agintariena (13)** — **Alkar lana:** Acción común  
**Alkar lana: lur zabalekoena (51)**  
**Alkartasuna (59)**  
**Alkar izketa (54, 73)** — Diálogo  
**Alperriko diru-ondatzeak (53)** — Despilfarros  
**Anai arteko maitasuna (71, 73)**  
**Anaienganako maitasuna (79)**  
**Anaitasuna (66, 71, 73)**  
**Anaitasuna gizadian (85, 86)** — Comunidad humana  
**Anai guztiok (44, 75)**  
**Anai arteko burrukak (26)** — Luchas fratricidas  
**Anbrosi deuna (23)**  
**Armetan nor geiagoka (53)** — Carrera de armamentos  
**Arrokeria (53)**  
**Artu-emon zuzenak (70)** — Relaciones justas  
**Askotara iokatzeko bidezko bat (39)** — Pluralismo legítimo  
**Askatasuna lortu-barri daben erriak (6)**  
**Atzerakuntza (29)** — Retroceso  
**Atzerriratuak (69)** — Expatriados  
**Atzerrira beartuak (47)**  
**Aurrerakuntza (edonon)**  
**Aurrerakuntza betea (17)**  
**Aurrerakuntza osoa (5, 14)**  
**Aurrerakuntzara ioateko oztupoak (19)**  
**Bakartadea (77)**  
**Bakea (55, 73, 76, 80)**  
**Bakotxaren aurrerakuntza (16)**  
**Bakotxaren alegiña (15)**  
**Bakotxaren zeregiña (75)**  
**Bardintasuna (52)**  
**Barritze ausarditsuak (32)** — Renovaciones audaces  
**Barru argiago baten premiña (3)** — **Barru argia:** Conciencia clara  
**Batikano Batzar II (1, 3)**  
**Beartsuentzat laguntasunak (46)**  
**Bereala eginbearrekoa (29, 32, 80)**  
**Besteak onartzea (67)** — Hospitalidad  
**Bidegabekeria (30, 31, 32, 76)** — Injusticia  
**Bidegabekeria sal-erosketan (21, 57, 58)**  
**Bidegabekeriak (26, 63)**  
**Biotz zabaltasuna (32, 47)**  
**Bizitzeko bearrezkoa (57)**  
**Borondate oneko gizonak (5, 82)**  
**Diru laguntza (52)**  
**Dirua bidegabekeri askoren iturri (26)**  
**Dirua ezeukiei emon (47)**  
**Ebanjelioa ta gizona (32)**  
**«Ecclesiam suam» (54)**  
**Edonoren eskubideak (31, 33, 63)**  
**Egilleagana doa mundua (79)**  
**Egoera bidegabekoak (9, 30)**  
**Ekintzaren ordua (80)** — **Ekintza:** Acción  
**Ekonomia (34, 59)**  
**Ekonomia gizonarentzat (26, 86)**  
**Ekonomia gaur (8)**  
**Ekonomi agintea (52)** — Poder económico  
**Ekonomia azitzen (35)** — Progreso económico  
**Eleiza gizonarentzat (1)**  
**Eleizaren egintzak (12)**  
**Eleiza miñez (3)**  
**Eleiz agintarien zeregiña (81)**  
**Eleiz Gurasoen irakatsiak (23)**  
**Endazalekeria (63)** — Racismo  
**Erantzun bearrak banandu (70)** — **Erantzun bearrak:** Responsabilidades  
**Eredugarria (32)** — Ejemplar, modelo  
**Erri arteko «Caritas» (46)** — **Erri arteko:** Internacional  
**Erri arteko alkar artzeak (61)**  
**Erri makalak (65)**  
**Erri aurreratuen eginbearrak (48)**  
**Erri aberatsak (8, 41, 49, 56, 57, 61)**  
**Erri gosekillak (3)**  
**Erri alkartuak (4, 78)**  
**Erri eritxia (83)** — Opinión pública  
**Erri aberatsegiak (3)**  
**Erri txiroak (8, 41, 49, 56, 57, 61)**  
**Erri agintedunak (33, 37)**  
**Erriak, politikan euren buruen iaube (54)**  
**Errien egoera mingarriak (4)**  
**Errukia (74)**  
**Eskolagabekeria (35)** — Analfabetismo  
**Etxe bizitzak (53)**  
**Ezbardintasun bidebakoak (57, 59, 61)**  
**Ezeukiak (76)**  
**Ezkontzeko eskubidea (37)**  
**Ezizailleak (48, 83)** — Educadores  
**Eztabaidak (51)** — Controversias  
**F.A.O (46)**  
**Foucauld Karlos (12)**  
**Gaizkatzailearen oparia (79)** — **Gaizkatzaile:** Salvador  
**Gaurko ezikeraren arriskuak (41)**  
**Gazteeri deika (74)**  
**Geixo etxeak (53)**  
**Giza aunditasuna (6, 21, 30, 32, 39)**  
**Gizadiko ezbardintasunak (8, 9, 29, 33, 34, 76)**  
**Gizadia anditzen (16)**  
**Gizadi sendia (62)**  
**Gizadia aurrerabidean (17)**  
**Gizatasun barria (20)** — Humanismo nuevo  
**Gizatasun osoa (42)**  
**Gizaldiak muturka (10)**  
**Gizarteko aitueziñak (9)** — **Gizarte:** Sociedad  
**Gizarte auzia, mundu guztikoa (3)** — **Gizarte auzia:** Problema social  
**Gizarteko zuzentasuna (59, 61)**  
**Gizarte zuzentasuna (59)**  
**Gizarte aurrerakuntza (34, 35)**  
**Gizonen ametsak (6)**  
**Gizona, gizadiarena (17)**  
**Gizona, Kristogan osotu (28)**  
**Gizonak gizona ondu (42)** — **Ondu:** Superar  
**Gizona, bere alde onak (15)**  
**Gizona, berak egiñen erantzule (15)**  
**Gizon agintariak (83, 84)**  
**Gizonari dagokiozanak (21)**  
**Gizonari ez iagokozanak (21)**  
**Gizonarentzat aurrerakuntza betea (73)**  
**Gizon guztientzat deia (87)**  
**Gizona aurrerakuntzaren egille (34)**  
**Gogozkoetan azi (34)** — **Gogozko:** Espiritual  
**Gogo-lantzea lortu (21)** — **Gogo-lantzea:** Educación cultural  
**Gogozko txirotasuna (21)** — Pobreza voluntaria  
**Goimaitasuna (75)** — Caridad (virtud teologal)  
**Gosearen aurka (45)**  
**Gotzaiñak (32)**  
**Gudarako eralgiak (51)** — Gastos militares  
**Gudaritza (74)** — Servicio militar  
**Guztien ona (21, 24, 31, 38)** — Bien común  
**Guztien azoka (60)** — Mercado común  
**Iainkoa (42)**



**Iainkoak egindakoak guztientzako (22, 23)**  
**Iainkoa gizon guztien Aita (21)**  
**Iainko-semeak (82)**  
**Iainko-erria (79)**  
**Iakintsuak (48, 85)**  
**Ikasle gazteak (68)**  
**Ikasleak (68)**  
**Ikastolak (53)**  
**Indarrezko aldakuntza (31) — Reforma violenta**  
**Indarkeria (11) — Violencia**  
**Industrigilleak (70)**  
**Iokaera zapaltzailleak (21) — Estructuras opresivas**  
**Ion XXIII (2, 3, 28, 46)**  
**Iopukeria (34) — Esclavitud**  
**Itxaropena (79)**  
**Izadia, gizonarentzat da (22)**  
**Izadia, lanaz edertuten (27)**  
**Izadi eskubidea (59) — Derecho natural**  
**Izadi gaiñetiko mundua (28) — Izadi-gaiñetiko: Sobrenatural**  
**Kapitalismu (domukeri) liberala (26)**  
**Katolikuak (81)**  
**Kolonialismua (7, 52)**  
**Koloni-egintza (63)**  
**Kolonialismu barria (52)**  
**Kristau anaiak (5, 82)**  
**Kristau eztiran anaiak (82)**  
**Kristoren Biotza (74)**  
**Kristoren maitasunean bat (21)**  
**Kristoren Soiña egintza (79)**  
**Kultura bidetan (30, 40)**  
**Kultura erakundeak (40, 67)**  
**Laikuak bide barrien billa (81)**  
**Laikuak misiñoetan (74) — Abadegintza artubakoak**  
**Laikuak (81)**  
**Lana (22, 28)**  
**Lanaz izadia landu (27)**  
**Lanak alkartu ta anai egin (27)**  
**Langillea (27)**  
**Langilleak zapaltzea (21)**  
**Langilleen anditasuna (28)**  
**Langilleak atzerrian (69)**  
**Lan-sari zuzena (59) — Lan-saria: Salario**  
**Lantegia (28) — Fábrica**  
**Larregikeriak (49) — Lo superfluo**  
**Lege zarrak (10) — Tradiciones**  
**Leo XIII (2, 59)**  
**Liberalkeria (26, 58)**  
**Lur-langilleak (9) — Agricultores**  
**Lugintza barritzea (29) — Reforma agraria**  
**Maitasuna guztientzako (44, 62)**  
**Maitasun kristiñaua (67)**  
**«Mater et Magistra» (2)**  
**Materialismua (18)**  
**Materialismura zirikatua (41)**  
**Mixiolarien lana (12)**  
**Moraltasunean aurreratu (34)**  
**Munduarentzat agintaria (78)**  
**Munduko larregien pillatzea (51) — Fondo mundial**  
**Mundu bat egin (47)**  
**Mundu obe bat (65)**  
**Mundu guztirako legedia (78)**  
**Munduko guztiekaz alkartu (5, 17, 48, 62, 64, 65, 73, 80, 84)**  
**Nekazaritza (57, 60)**  
**Norgeiagoka (26, 33) — Competencia**

**Norberekoikeria (49) — Egoísmo**  
**Norberenak legez kentze bat (23) — Expropiación legítima**  
**Norberenak izateko eskubidea (22) — Derecho de propiedad**  
**Norberen aberastasunak zertarako (48) — Fin de las riquezas**  
**Ogia guztientzat (86)**  
**Ondasunak atzerriratzea (24) — Fuga de capitales**  
**Otoitza (75)**  
**«Pacem in terris» (2)**  
**Paul gurena (28)**  
**Pentsalariak (20, 85)**  
**Personearen askatasuna (36)**  
**Premin larria (76)**  
**Premiñezkoenak (21)**  
**Prestatzeak (54) — Préstamos**  
**Pio XI (2, 25)**  
**Pio XII (2, 74)**  
**«Quadragesimo Anno» (2)**  
**«Rerum Novarum» (2, 59)**  
**Sal-erosketa artu-emonak (56, 60, 61) — Relaciones comerciales**  
**Sal-erosleak (70) — Comerciantes**  
**Sal-erosketan bardintasuna (56)**  
**Sal-neurriak (57, 58, 61) — Precios**  
**Samin onartua (79) — Dolor aceptado**  
**Santiago (45)**  
**Semeak zenbat? (37)**  
**Sendia (36)**  
**Sendi andrabatduna (36) — Familia monógama**  
**Siñestedunak (82)**  
**Tekniku laguntza (52)**  
**Sinismena (21)**  
**Trukatze askea (58, 60) — Libre cambio**  
**Ugaritzeko eskubidea (37)**  
**UNESCO (35)**  
**Usterik-eza (52) — Desesperación**  
**Zekenkeria (18, 19, 49) — Avaricia**  
**Zergak (47) — Contribuciones**  
**Zorrak (54)**  
**Zuzentasuna (76)**  
**«Zuzentasuna ta Bakea» batzordea (5)**

ELEIZ BAIMENAK BA DAUZ  
 Euskeratzailea: **GARITAONANDIA'tar GOTZON**

**ANAITASUNA**

Kantauriko Frantziskotarrak argitaratua.  
 ANAITASUNA idazti lez agertuko da, aldizkari lez  
 argitaratzeko baimenak eldu artean.

IDAZTI AU 1967-ko DAGONILLAREN 12-an  
 AMAITU EBAN «GRAFICAS BILBAO» IRARKO-  
 LAK.

Zuzendaritza ta Banakola  
 Irala, 8 — Bilbao-12

D. L.: BI 1.753 - 1967

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28, 3.º - BILBAO-12